

## Kultura

Donostiako Dantzaz konpainiaren emanaldia,  
uztailaren 27an, Elorriko Musikairen > 11



Garaiko,  
Mañariko  
eta  
Mallabiko  
jaiak  
2013

## “Arrakastaren sekretua konstantzia da. Entrenatzea eta entrenatzea”

Silvia Trigueros barakaldarra den arren, Abadiñon bizi da. Sasoi betean dago: aurten Apuko Igoera, Eskoriatzako Gabez Takarraran eta Goierriko Bi Handiak irabazi ditu > 15



## Greba mugagabea hasi zuten astelehenean Zaldibarko CMZ enpresako 70 beharginek > 4

Hitzarmen duina eta kaleratutako langilea berriro hartzea eskatzeko ekin diete mobilizazioei

CMZ enpresa taldean gehiengo sindikala duen LAB sindikatuak azaldu duenez, langileon hurrengo nomina gutxieneko soldatagaz “parekatzeko” asmoa agertu du zuzendaritzak. Beharginek murrizketa hori ez dutela onartzen azaldu dute, ez eta 13 urtez enpresan lanean jardun duen behargina

kaleratzea ere. Langileek azaldu dutenez, Arantza Baigorri Zaldibarko alkateak enpresaren eta langileen artean bitartekari aritzeko eskaini du bere burua. Enpresaren erantzunak “borondate falta” erakusten duela diote langileek: “Beragaz ez dutela zertan egoeraz hitz egin erantzun diote alkateari”.

# ALKIMAX

Alquilamos soluciones



Hostoentzako haize-makina

Motorserra

Zulagailua

Lorezaintzarako traktorea

Gasolinazko motordun altzura

Eitua industrigunea  
71C  
48240 BERRIZ  
(Bizkaia)  
94 682 45 50  
www.alkimax.com  
alkimax@alkimax.net

### Durangaldea > 3

Larrialdietan murrizketa gehiago aplikatu dituztela salatu dute

### Zaldibar > 4

Eraso sexitei aurre egiteko protokoloa aurkeztu du Bilduk

### Otxandio > 6

Biogasaren inguruko enpresa bat bisitatu dute Herbehereetan

### Durango > 3

Arripausuetako futbol 7ko zelaian belar berria ipiniko dute

# Herririk herri

> ELORRIO

## Udaleko inkesta gaztelaniaz izatea kritikatu du Bilduk

Inkesta gaztelaniaz izatea, anonimoa ez izatea eta erabilitako adin tartea txarretsi ditu Bilduk

> MARKEL ONAINDIA

Udala inkesta bat egiten dabil egunotan, bere zerbitzuek herritarren daukaten harrera neurtzeko. Bilduk adierazi du hainbat herritarren kezak jaso dituztela, eta inkesta kritikatu du. Alde batetik, galdetegiak gaztelaniaz izan direla txarretsi dute. Bestetik, ez dela anonimoa izan, eta adin tarte txikiegia ezarri dutela uste dute.

Ana Otadui (EAJ):  
"Inkesta euskaraz zein gaztelaniaz egiteko aukera egon da"

Bilduko zinegotzi bati ere egin ei diote inkesta gaztelaniaz. "EAJk euskararekiko inolako irizpiderik ez duela salatu nahi dugu. Inkesta honekin gertatu dena udaletxeko egunerokoan euskararekiko duten sentsibilizazioaren adierazgarri bikaina da". Inkesta egin duen enpresari euskaragaz lotutako irizpideak ez ematea leporatu dio Bilduk EAJri. Euskara saila eta teknikaria ez direla informatuta egon esan du Bilduk.

Ana Otadui alkatearen iritziz, Bilduk esandakoa ez da zuzena. "Inkesta euskaraz zein gaztelaniaz egiteko aukera egon da; inkestatuak aukeratutako hizkuntzaren arabera egin dira inkesta



Elorrioko herritarrei gaztelaniaz galdetu dietela kritikatu du Bilduk.

guztiak. Egindako inkesten %15 euskara hutsean egin dira".

Bestalde, galdetegia izen eta abizenekin egin dela dio Bilduk. "Ulertezina egiten zaigu horrelako inkesta bat anonimoa ez izatea". Inkestatuen adin tartea 18-35 izatea ere ez zaio gustatu. Horregaz ere kezak batu ei ditu.

"Akaso beraien interesetan pentsatzen ibili dira, igerilekuen alde egin dezakeen adin tartea delako?", galdetu dute. Otadui adierazi du kasu hauetan esandakoa ere ez dela zuzena. Esan du inkestatuen izenak ez direla udalean jasoko, eta adin guztietako jendea galdekatu dutela.

## Ikastetxerako bideak hobetu gura dituzte

> M.O.

Eskolara bidean segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzea. Helburu hori dauka udalak datorren ikasturteari begira. Hainbat neurri adostu ditu guraso elkarteagaz, prentsa ohar bidez adierazi dutenez. Esaterako, herri ikastetxerako sarrera lekuz aldatuko da, Goieta kalera.

Goieta kalea norabide bakarrekoa izango da, eta oinezkoentzako prestatuko dute: margotu, babestu eta seinalizazioa ipiniko dute. Ikastetxearen inguruan, gehienez 30 kilometro orduko abiadura joan ahal izango da, eta horretaz ohartaraziko dute. Autobusen sarrera Berrioza-balbeitia kaletik egingo da, eta ikastetxe sarreran ezingo da aparkatu. Gainera, barruan bizikletetarako aparkalekua egokituko dute.

Bilduk maiatzean kritikatu zuen oraindik arriskua zegoela bide horretan.

## Uda Gaztetxeroa martxan dago

> M.O.

Elorrioko gaztetxeak aurten go udarako ere antolatu du Uda Gaztetxeroa. Kanpaina honen barruan hainbat ekintza egingo dituzte. Asteburu honetan bertan kale futbito txapelketa izango dute. Gaur hasita, domekan izango da finala. Txapelketa horregaz ekingo diote egitarau osoari.

Denerikoak izango dira datozen asteetarako prestatutako ekintzak. Astelehen eta martitzenean trapezio ikastaroa egingo dute, esaterako. Eguaztenerako Landara irteera eratu dute, eta hurrengo asteburuan mendi bizikleta praktikatzeko Iparraldera joango dira. Abuztuaren abenturagaz lotutako eskaintza da nagusi: Pirinioetara irteera, eskalada... Puentingagaz amaituko da egitaraua, abuztuaren 21ean.

Abuztuaren abenturagaz lotutako eskaintza da nagusi: Pirinioetara irteera, eskalada...

## Argiñetako jaiak prest dauzkate, ikerketarako zuloak tapatu ostean

Argiñetako gune arkeologikoan amaitu dute ikerketaren bigarren fasea; 2014an amaituko dute ikerketa proiektu osoa, hirugarren faseagaz

> M.O.

Argiñetako gune arkeologikoan amaitu dute ikerketaren bigarren fasea, eta auzoko jaiak ospatzeko moduan egongo da ingurunea. Izan ere, azterketarako egin dituzten zuloak tapatu dituzte behin-behinekoz. Azken asteetan bisita gidatuak ere egin dituzte bertan, orain arte jasotako emaitzak bertatik bertara erakusteko asmoz. Arkeologoen topatutako herrixka eta hilerriaren aztarnak VI. eta XI. mendeen bitartekoak dira. Baina, beste

material batzuk kontuan hartuta, ez dute baztertzen okupazioaren datazioa kristau aroaren hasierakoa izatea. 2014an amaituko dute ikerketa proiektu osoa, hirugarren faseagaz.

Abuztuaren 2an hasiko dira Argiñetako Kofradi Jaiak, Luhartz taldearen emanaldiaz

Abuztuaren 2an hasiko dira Argiñetako Kofradi Jaiak, Luhartz taldearen emanaldiaz. Hurrengo egunean, 3an, kofradi bazkaria egingo dute, eta egun osoan auzoko trikitilariak ibiliko dira giroa alaitzen. Abuztuaren 4rako bertso saioa eratu dute, 22:00etan, Arkaitz Estibales eta Etxahun Lekuegaz. Jaiak amaitzeko, paella jana egingo dute abuztuaren 5ean. Horrez gainera, afariak emango dituzte egunero, txuleta, entsalada eta abarrek.



Zuloak tapatzeko lanetan ibili dira egunotan.

> BERRIZ

## Udaletxeko lan hitzarmena adostu dute

> AMAIA UGALDE

Espainiako gobernuaren errege dekretua dela-eta, udaletxeko langileen lan hitzarmena aldatu dute. Ordezkarri sindikala eta alkatea ibili dira lan hitzarmena adosten, eta Orland Isoird alkateak azaldu duenez, "ahalik eta hitzarmen malguena" izatea gura izan dute.

Hitzarmenean, besteak beste, zazpi ordu eta erdiko lanegunak definitu dituzte. Norbere gauzetarako baimen egunak seitek hirura jaitzi dituzte, eta aitatasunagatik eta gaixotasunagatik eskatutako baimenetan hobekuntzak egin dituzte. Formazioari begirako orduen gaineko konpromisoa hartu dute, tartean arrisku laboralak minimizatzea ere.

Aurrekontuen aurkezpena Datorren astelehenean, uztaileak 22, 2013ko udal aurrekontuak jendaurrean aurkeztuko dituzte. Kultur Etxean izango da aurkezpena, 20:00etan.

**> DURANGALDEA**

Landakoko larrialdietako beharginen protestak egin dituzte euren lan baldintzengatik.

## Larrialdietan, arazoa konpondu barik eta murrizketa gehiagogaz

PSE-EEK mozioen balantzea egin du; EAJri jarrera partidista leporatu dio

**> MARKEL ONAINDIA**

PSE-EEK Landakoko larrialdietako -arreta jarraiturako gunea- beharginen eskaerak babesteko mozioa aurkeztu du eskualdeko udaletan. Hain zuzen ere, anbulantzia medikalizatu bat eta beste erizain bat eskatu dizkiote Jaurlaritzari. Mozioen balantze legez prentsa oharra bidali du, eta adierazi du Eusko Jaurlaritzak ez diela udalei kasurik egin. Gainera, murrizketa bat aplikatu dutela esan dute: etxee-

tarako irteeretan erizain barik joateko agindu diete, eta bertan daudela beharra ikusten badute, orduan deitzeko erizainari. EAJ kritikatu du PSE-EEK: "EAJko alkateek Urkulluri enbarazu egitea saihestu dute, eta euren udalbatzarretako aginduak ez dituzte bete". Jarrera partidista edukitzea leporatu diote.

Larrialdietako beharginen murrizketa egon dela berretsi dute. Agindu berria, euren eskaerak mozteko edo trabatzeko

egin dutela uste dute: "Gure kontra dator". Jaurlaritzak, euren profesionaltasuna eta irizpideak zalantzan ipini gura dituela esan dute. Ohartarazi dute, etxe batera joan eta erizainaren beharra ikusten badute, atzerapen handiagaz helduko dela.

Bestalde, abuztuan anbulatorioa 17:00etan itxiko dute, 20:00etan beharrez. Horrek eurentzako lan karga handitzea dakarrela kritikatu dute, eta lantaldea ez dietela handituko.

## GR Mikeldi ibilbidea konpontzen ari dira

Urkiola Landa Garapenak ekin dio lanari

**> JONE GUENETXEA**

GR Mikeldi ibilbidea zer konponketa behar dituen jasotzen duen azterketa egin du Durango Sapubike klubak. Diagnostikoa Urkiola Landa Garapena Alkarteari eman diote orain. Iker Sagardui Sapubikeko kideak azaldu duenez, landaretzaren mantentze lana da eskatzen duten puntu garrantzitsuenetako bat. Ganaduarentzako pasabide batzuk bizikletarien beharretara egokitzea, eta seinaleztapena jasotzen duten eta egoera txarrean dauden posteak konpontzea dira bizikletarien beste eskabideetako batzuk.

Juan Mari Totorikaguena Urkiola Landa Garapena Alkarteko arduradunak azaldu duenez, dagoeneko ekin diote lanari. Udaberrirako, ibilbidea gertu egotea espero dute. Izurtza, Mañaria, Abadiño, Atxondo,

Elorrio, Berriz, Zaldibar, Garai, Iurreta, Zornotza eta Durango zeharkatzen ditu GR Mikeldik. Guztira 86 kilometro dituen ibilbide baliotsua da. Urkiola Landa Garapenak hitzarmena dauka sinatuta udalekin, ibilbidearen mantentze lanen ardura hartzeko.

**Izurtzako zatia**

Juan Mari Totorikaguena, baina, GR Mikeldi osoa atontzea ez dela posible izango adierazi du: "Leku batzuetan interbentzio handia egin behar da, eta ekonomikoki oso garestia litzateke". Izurtzan, esaterako, euriteak direla-eta gertatutako lur mugimenduek kalte handia eragin dute ibilbidearen puntu horretan. Konponketa hori Urkiola Landa Garapenak ezin duela bere gain hartu dio Totorikaguena.



Izurtzatik Mañarira arteko ibilbidean zorua egoera txarrean dago.

**> DURANGO**

Belar artifizial berria ipiniko dute futbol 7ko zelaietan.

## Futbol 7ko zelaietan belar berria, 31.000 euroguz

**> M.O.**

"Belar artifiziala, erabiliaren erabiliaz, txarto zegoen". Berba horiek erabili ditu udalak, Arripausuetako futbol 7ko zelaietako belar artifiziala aldatzeko obra azaltzeko. Gainera, beste hainbat gabezia zeuzkala ere nabarmendu du: zuntza lar gogorra eta kautxua trinkoegia zirela, esaterako.

Bertan futbola praktikatzeko dutenen segurtasuna hartu dute aintzat gabezia horiek konpontzeko: "Hauek guztiek lesioak eragin ditzakete, belarrak behar besteko malgutasunik ez duela". Zelai horretan hainbat ikastetxetako ikasleek jolasten dutela gogorarazi du udalak. 31.000 euro kostako zaio obra hau burutzea.

**"Punta-puntakoa"**

Udan egingo dituzte lanak Arripausuetan. Kautxua eta harea kendu eta zorua zelan dagoen aztertuko dute lehenengo. Ostean, belar artifizial berria ipiniko dute. Kalitatezko belarra dela azaldu dute oharrean: "Punta-puntako teknologia erabiliko da zelai berria jartzeko".

31.000 euro inbertituko ditu udalak obra horretan. Mondo Iberica enpresari adjudikatu diote proiektua, prentsa oharrean azaldu dutenez.

# GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8  
946 827 038  
48250 ZALDIBAR



**EUSKO LABEL**

Baimendutako harategia  
**Euskal Okela**  
Carniceria autorizada

Antso Estegiz, 1  
946 812 247  
48200 DURANGO

katerin ardoak

inaki uribe



Eguneko menuak - Asteburuetan menu bereziak - Delikatessena - Ardoteka

kurutziaqa 40 48200 DURANGO T/F 946200427

saltsan.com

**> ZALDIBAR**

## “Langileekin negoziatzeko ez dago prest enpresa: pultsua egin digu”

Greba mugagabea hasi zuten astelehenean CMZ taldeko 70 langilek

**> ITSASO ESTEBAN**

Astelehenetik greba mugagabea daude CMZ taldeko 70 langile. Bi dira euren aldarrikapenak: “Hitzarmen duina” eta “kalera-turiko langilea berriro hartzea”.

Enpresa taldean gehiengo sindikala daukan LAB sindikatuko Eneko Agirre delegatuak azaldu duenez, “langileon hurrengo nomina gutxieneko soldatagaz parekatzeko asmoa” agertu du taldearen zuzendaritzak. Langileek ez dituzte onartzen soldata

murrizketa hori eta 13 urtez bertan lanean ibilitako langile bat kaleratu izana. Bestalde, 2012tik berriro barik daukaten lan hitzarmena negoziatzea ere eskatzen dute langileek.

Joan zen barikuan langileen ordezkariak egindako proposamena ez zuten onartu arduradunek. Horri erantzunez, greba egitearen alde agertu ziren 70 langiletik 59: “Enpresa ez dago langileekin negoziatzeko prest: pultsua egin digu”.

Langileen ustez, Arantza Bai-gorri Zaldibarko alkateak enpresaren eta langileen arteko bitartekari aritzeko bere burua eskaini duenean, enpresak eman duen erantzunak erakusten du borondate falta: “Beragaz ez dutela zertan egoeraz hitz egin erantzun diote alkateari”.

Langileak greban egon arren, arduradunek produkzioarekin jarraitu gura izan dutela eta horrek greba eskubidea urratzen duela ere salatu dute.



Enpresa aurrean egin dituzte, asteon, langileek mobilizazioak.

## Eraso matxistei aurre egiteko protokoloa aurkeztu du Bilduk

Udalbatzari aurkeztu zioten proposamena, atzo



Udaletxeko balkoian gaitzespen pankarta ipiniko dute eraso berri jasotzean.

**> I.E.**

Atzo iluntzean proposatu zien Bilduko gobernuak udaleko gainerako alderdiei, eraso eta eraiketa matxistei aurre egiteko helburuz, berdintasun teknikiariagaz landuriko protokoloa.

Emakume bat erailtzen edo erasotzen dutenean, erabateko gaitzespena adieraztea da protokolo horren helburua, eta herritarren kontzientzia piztea.

Udalak Euskal Herrian gertaturiko eraso sexista baten berri jasotzean, udaletxean hiru egunez *Emakumeenganako indarkeria gehiagorik ez lelodun pankarta ipini* eta gaitzespen kontzentrazioak deitzeko konpromisoa jasotzen du, besteak beste, Bilduk proposaturiko protokoloak. Bestalde, herriko elkartei protokoloarekiko atxikipena eskatu gura die udalak.

**> MALLABIA**

## Jubilatuaren bazkarirako izena eman daiteke abuztuaren 5era arte

**> JONE GUENETXEA**

Mallabiko jubilatuen, ohiturari eutsiz, bazkaritan batuko dira abuztuaren 16an, San Roke egunez, frontoian. Catering enpresa bat arduratuko da bazkariak. Interesdunek abuztuaren 5a baino lehen izena eman behar dute, udaletxean. Bazkalostean, trikitilariak giroa alaituko dute, eta Gregorio Larrañaga *Mañukortak* eta Juan Mari Areitiok bertsotan egingo dute.

**Kultur Etxea itxita**

Udako oporrak direla-eta, Kultur Etxea itxita egingo da irailaren 2ra arte.

Bazkalostean, Mañukortak eta Juan Mari Areitiok bertsotan egingo dute

Udako oporrak direla-eta, Kultur Etxea itxita egingo da irailaren 2ra arte

**> GARAI**

## Herria arte galeria bihurtu dute, Zubiaurretarren argazki zaharrekin

Herriko eraikinetan Valentin eta Ramon Zubiaurre anaiek XX. mende hasieran ateratako argazkiak eskegi dituzte tamaina handian



Garaiko etxe eta eraikinetan ipini dituzte argazkiak.

**> MARKEL ONAINDIA**

Uda honetan 100 urte atzera egingo dute Garain. Herriko eraikinetan, Zubiaurre anaiek XX. mende hasieran ateratako argazkiak eskegi dituzte, tamaina handian. Berez, margolariak ziren Valentin eta Ramon Zubiaurre, baina argazkilaritzan ere egin zuten lanen bat edo beste. Garain, euren koadroetan erretratzen zituzten herritarrei eta paisajeei argazkiak atera zizkieten. Bilboko Arte Ederren Museoan hainbat dauzkate gordeta, eta artxibo horretako lan batzuk hartuta osatu dute Garaiko erakusketa. Hamabi argazki dira, beste horrenbeste eraikinetan. Herrigunea arte galeria bihurtu dute abuztuaren 31ra arte.

Udalak eta Gerediaga elkar-teak bultzatu dute erakusketa, efemeride bi kontuan hartuta: Valentin Zubiaurre eta bere koinatu Ricardo Gutierrez –Juan de la Encina lez ezaguna– hil zirela 50 urte dira aurten. Hori dela-eta, zenbait ekitaldi prestatuko dituzte, eta erakusketa izango da

horietako bat. Joan zen zapatuan ere, berbaldua eskaini zuten Zubiaurre familiak Javier Viar eta Iker Gonzalez-Allende adituek.

1837an Garain jaio zen Valentin Zubiaurre musikari ospetsuaren semeak ziren Valentin eta Ramon. “XX. mendeko euskal pintura erreionalistako margolaririk aipagarrienetarikoa” direla azaldu du Gerediaga elkarteak. Euren aitak semeak musikari izatea gura zuela esaten dute adituek, baina gorra ziren. Europan zehar ibili ziren ikasten.

**Pilar eta Juan de la Encina**

Margolarien arreba Pilarren ibilbidea berreskuratu zuen Gonzalez-Allendek 2010ean. Frankismoan, egindako lana estali zuten, haren izaeragatik. Intelektual feminista zen eta sozialista batez ezkondu zegoen, Juan de la Encinagaz. Biek tertulia literarioak eratu zituzten Madrilen, García Lorca, Jiménez, Ortega y Gasset eta beste hainbat ezagunen partaidetzagaz.

# ABADIÑON GEREDIAGA AUZOAN

## SALBADORE JAIK 2013

### Abuztuak 2, ostirala

- ▶ **Iluntzeko 8etan "Donien Atxa" jaso eta txapligu eta trikiti doinuekin jaiet hasiera ematea.**
- ▶ **Gaueko 9ak aldera jai-batzordeak, EUSKAL OKELAZ,** egindako gisatua banatuko du jai eremura hurbildutako guztien artean.
- ▶ **Gaueko 10:30ean "ETZILIMO" taldearekin erromeria**

### Abuztuak 3, larunbata

- ▶ **Arratsaldeko 6etan "Asto Lasterketa"**  
**Sariak:** 1- 80 euro, eta txanpan botila .  
2- 60 euro, eta txanpan botila .  
3- 40 euro, eta txanpan botila .  
Saririk jaso ez duten parte-hartzaile guztiei, 15na euro emango zaizkie.
- ▶ **Arratsaldeko 7:30ean "TORTILLA TXAPELKETA"**  
**Sariak.** 1- 60 euro, gazta bat eta ardo botila bi.  
2- 40 euro eta ardo botila bi.  
3- 20 euro eta ardo botila bi.  
Parte-hartzaile guztiei piperrak banatuko zaizkie.  
Jai-batzordeak, **KALITATEZKO EUSKAL TOMATEAZ,** prestatuturiko entsalada eta ardoa jarriko ditu, plazan afari-merienda egingo dutenen artean.
- ▶ **Gaueko 10:30ean BERTSOLARIAK**  
Unai Iturriaga  
Igor Elortza  
Andoni Egaña  
Maialen Lujanbio  
Gai-jartzailea: Maite Berriozabal
- ▶ **Gaueko 12etan erromeria, LUHARTZ taldearekin.**

### Abuztuak 4, igandea

- ▶ **Goizeko 12etan Meza**  
Meza ostean **"HAMABI HARRI"** dantzarien eta gorularien dantza saioa.
- ▶ **Goizean "Bakailao Txapelketa"** pil-pil erara:  
**Sariak:** 1- 80euro, gazta eta txakolin kutxa .  
2- 40 euro eta txakolin botila bi.  
3- 20 euro eta txakolin botila bi.  
Aurkeztu eta sari barik geratu diren guztiei, txakolin botila bana emango zaie. Kazolak eguerdiko 2etan aurkeztuko dira.
- ▶ **Arratsaldeko 5etan, "Mus Txapelketa"**  
**Sariak:** 1- 150 euro, txapelak eta txanpan botila bi.  
2- 100 euro, eta txanpan botila bi.  
3- 50 euro eta txanpan botila bi.  
4- 40 euro eta txanpan botila bi.  
Bikoteko, 10 euro jarriko dira. Bikoteari errifarako bi txartel emango zaizkie.
- ▶ **Arratsaldeko 7etan "Karabinaz Tiro" txapelketa.** Lehen kanporaketa. Bost tiratzaile onenak, astearte arratsaldeko finalerako sailkatuko dira.  
Parte hartzeko euro bat jarriko da eta, errifarako txartela emango zaie.
- ▶ **Iluntzeko 8:30ean "Erromeria"** Ansorregi, Larrañaga eta Lutxurdiorekin.
- ▶ **Gaueko 9etan: AFARI HERRIKOIA**
- ▶ **Gaueko 11etatik aurrera** erromeriak jarraituko du.

### Abuztuak 6, asteartea

- ▶ **Eguerdiko 12etan Meza**  
Meza ostean, ohi denez aureskua eta atzeskua dantzatuko dira.
- ▶ **Eguerdiko 01:00etan "IGEL TXAPELKETA"**  
**Sariak:** 1- 40 euro eta txakolin kutxa .  
2- 20 euro eta txakolin botila bi.  
3- 10 euro eta txakolin botila bi.  
Parte hartzeko euro bat ordainduko da eta errifarako txartela emango zaie.

- ▶ **Ordu bata aldera,** jai-batzordearen txosnan, kangrejoak banatuko dira.
  - ▶ **Paella txapelketa. Paella-ontziak** eguerdiko 2etan aurkezteko dira.  
**Sariak:** 1- 75 euro eta txakolin kutxa.  
2- 50 euro eta txakolin kutxa.  
Partaideei, errifarako txartel bat emango zaie.  
Jai batzordeak, plazan bazkalduko dutenei ardoa banatuko die.  
Goizean trikitilariak izango ditugu jai gunea alaitzen.
  - ▶ **Arratsaldeko 5etan, "BRISKA TXAPELKETA"**  
**Sariak:** 1- 120 euro garaikurrak eta txanpan botila bi.  
2- 70 euro eta txanpan botila bi.  
3- 50 euro eta txanpan botila bi.  
4- 30 euro eta txanpan botila bi.  
Bikoteko 8 euro. Partaideei errifarako txartela emango zaie.
  - ▶ **Arratsaldeko 05:00etan, "UMEEN JOLASAK"**  
Jokoak denentzat, sariak denentzat.
  - ▶ **Arratsaldeko 06:30ean, "Karabinaz Tiro"** bigarren kanporaketa. Lehen bost sailkatuek finalerako txartela jasoko dute.  
Parte-hartzaileek euro bana jarriko dute eta errifarako txartela emango zaie. Kanporaketak amaitu ostean, txapelketako finala jokatu da 10 lehen sailkatuekin. Irabazleak saritza, karabina eskuratuko du.
  - ▶ **Gaueko 8:30ean, ERROMERIA,** Ansorregi bere taldeagaz.
  - ▶ **Gaueko 21:00etan, "BERTSO AFARIA"** Jai-batzordearen 40. urteurrena **"4 Hamarkadetarako 4 Kanta"** Jon Maia eta Amets Arzallusekin. Afari ostean erromeriak jarraituko du goizaldera arte.
  - ▶ **Goizaldeko 1etan** jaien aldeko errifaren zozketa egingo da.
  - ▶ **Goizaldeko 2etan,** txapliguekin, jaiet amaiera ematea.
- ARGAZKI ERAKUSKETA.** Igandean eta Salbadore egunean, Hamabi Harrik urte osoan egindako ekitaldietan ateratako argazkiak jarriko dira ikusgai.

### OHARRAK

Aurten ere, jaien aldeko errifa atera da eta txosnan egongo da salgai. Jai-batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen ezbeharren erantzule egingo.

Aurtengo jaietan ere, kamisetak egongo dira salgai!!!!!!  
Bertsotaria 15 euro izango da eta izena eman beharko da aldeztatik, **626945623. (Kepa)**

### ETXE LAGUNTZAILEAK

ABADIÑOKO UDALA, ESTAMPACIONES BIZKAIA, MAHATS frutadenda, URTIAGA Iturgintza, ETXETXO Inmobiliaria, DIBA Kooperatiba, EROSKI Abadiño, NORIKA Karabinak, SERAFIN Tailerrak S. Koop, EGUZKI Elektrizitate etxea, EUSKO LABEL, MURUETA Baserria, RINCON elektrizitatea, ALKIMAX, ARTALAR NEGUTEGIAK eta EDURNE arraindegia.

**> OTXANDIO**

# Biogas enpresa bat bisitatu dute Herbehereetan

Eredu hura baligarria izan daiteke Otxandiorako

**> JOSEBA DERTEANO**

Herrian biometanizazio planta egiteko udalaren asmoa aspaldikoa da. 2011n energia elektrikoa energia berriztagarrien bidez ekoizteagatik Espainiako gobernuak ematen zituen hobariak bertan behera geratu zirenetik, herrian biometanizazio planta bideragarri bat zelan egin aztertzen ibili da udala. Bide horretatik, Herbehereetako biogas planta bat bisitatu zuten ekainean.

Biometanizazio planta bat egiteko aurreproiektua 2011n egin zuen udalak. Ikerketa hori EEERekin –Energiaren Euskal Erakundea– elkarbanatu zuen,

eta ideia ona iruditu zitzaion hari. Hala, udala, EEE eta Onitek enpresa (biogasaren gaietan aditua) bideragarritasun azterketa bat egiten hasi ziren. Ikerketa egiten hasi eta berehala kendu zituzten hobariak. Hobari horiek barik, proiektua ez zen bideragarria, eta alternatibak bilatzeari ekin zioten.

Hobariak kendu arte, honako hau zen buruan zerabilten eredu: biogasa erretzean argindarra sortuko zuten, eta energia hori sare zentralera saltzearen hobariak lortuko zituzten; gainera, prozesu horretan sortutako berotasuna herriko eraikinetarako aprobetxatu gura zuten, ur bero moduan.

Bide hori baztertu ondoren, orain, honako ideia hau jorratzen dabilta: biogasa zuzenean etxe bakoitzeko galdaretan erretzeko modua zelan lortu aztertzen dabilta

Biogasa zuzenean etxe bakoitzeko galdaretan erretzeko modua zelan lortu aztertzen dabilta

## Lutxi Urigoitia gogoratzen duen murala kenduko dute

Ekainean guardia zibil bi udaletxera joan ziren esanez, Audientzia Nazionalak irekitako instrukzio bat oinarri hartuta, Lutxi Urigoitia gogoratzen duen murala kendu egin behar zutela. Gaur egun osasun zentroa dagoen eraikinean dago mural hori. Udalak agindua onartzea erabaki zuen, eta martxan ipini zuten

hura kentzeko prozedura. Prozedura hori amaitzean, murala gainetik pintatuko dute. Guardia zibilak handik egun batzutarera ere joan ziren udaletxera, eta erantzuteko galdera batzuk utzi zizkieten: udalak ba ote zekien murala nork egin zuen, esaterako.

Lutxi Urigoitia otxandiarra 1959an jaio zen, eta Guardia Zibilak hil zuen 1987an. ETako kidea zela leporatuta, 1987ko uztailan Guardia Zibilak bera babestuta bizi zen Pasaiako etxebizitza hartzean zendu zen, burura hurretik egindako tiro batez.

## Abentura parkea egiteko lurren esleipena onartu dute

Astlehenean egindako udalbatzarrean, EAJk eta Bilduk aho batez onartu zuten Olazar inguruan Abentura Parkea egiteko onura publikodunak diren lurren kontsezioa egitea proiektu horren sustatzaileei.

EAJk esan zuen proiektua esleitzeko prozedurako atal batez ez zegoela ados, eta orduko horretan baietz bozkatu zuela, baina etorkizunean antzeko kasurik egoten bazen, euren botoa ezezkoa izango

zela. Izan ere, proposamenaren ostean lehiaketa publikoa irekitzen bada eta beste edo nork bere proiektua aurkezten badu, proposatzaileei edozein eskaintza berdintzeko aukera eskaintzen die legeak, eta hori egingo balute, proposaileentzako eurentzako izango litzateke esleipena: “Ez zaigu zuzena iruditzen, batez ere, udal lurrak direnean. Hurrengorako, beste bide bat landu beharko litzateke”, adierazi zuen EAJko Javier Garatek. Santi Uribe alkatearen esantzan “Ideia izan, lan bat egin eta gero albotik norbait etorri eta proiektua kentzeko arrisku izatea ere ez da guztiz zuzena”.



Otxandioko Udaleko, EEKo, Onitek enpresako eta biogas enpresako ordezkariak Herbehereetako planta bisititzen.

zesu horrek makineria handia eta kimika asko eskatzen ditu. Baina Herbehereetan, Amsterdametik gertu, bada enpresa bat prozesu hori kimika gutxirekin eta modu konpaktuan egiten duena. Eta, hain zuzen, ekainean enpresa hori bisitatu zuten Otxandioko Udaleko or-

dezkariek (Santi Uribe alkatea tartean), eta, Energiaren Euskal Erakundeko eta Onitek enpresako ordezkariak. Bertan jasotako informazioa bideragarritasun plana egiteko baliagarria izango zaiela adierazi dute udal ordezkariak. Plan hori udazkenerako prest izatea gura dute, ondoren

herritarrekin elkarbanatzeko eta eztabaidatzeko.

“Aukerak badaude” adierazi du Santi Uribe alkateak, baina “zailtasun ugari” ere bai: “Aukera ona izan daitekeela uste dugu; ikusi egin beharko da bideragarritasun planak zer planteatzen duen”.

**> MAÑARIA**

## Ikastaro berriak eskaini gura dituzte irailetik aurrera

**> M.O.**

Mañariko Udalak ikastaro gehiago eskaini gura dituzte datorren ikasturtean. Antzadenez, hainbat herritarrek egindako eskaera izan da. Pilates, GAP eta gimnasia hipopresioa praktikatzeko ikastaroak eratu gura dituztela adierazi dute.

Arduradunek esan dute ikastaroen berri eman dutela, zenbat jende prest egongo litzatekeen jakin gura dutelako. Taldeak osatuz gero, urrian ipiniko lirateke martxan, azaldu dutenez. Irailean emango dute ikastaro hauen gaineko informazio gehiago; oraindik ez dago zehaztuta zenbat ordaindu beharko den, ez eta zein egunetan izango diren saioak ere.

Ez dago zehaztuta zenbat ordaindu beharko den, ez eta zein egunetan izango diren saioak ere

## Ursula Donearen ospakizuna, hilaren 26an

**> M.O.**

Mañariko Ursula Donea nagusien elkarteak jaia antolatu du hilaren 26rako, datorren barikurako. Aittitte-Amamen Eguna da eurentzat, eta hainbat ekintza prestatu dituzte. Lehenengo, meza egingo dute, 13:00etan. Horren ostean, bazkarian elkartuko dira, 14:30ean.

Ursula Doneako bazkideek 22 euro ordaindu beharko dituzte bazkarian parte hartzeko, eta bazkide ez direnek, oster, 28. Bazkarian apuntatzeko txartelak Errekondo tabernan eskuratu ahal direla azaldu dute nagusien elkarteko kideek.

**Jaien aurkezpena**

Bestalde, Andra Mari jaien aurkezpena egingo dute gaur udalbatzarren aretoan, 20:30ean. Horren aurretik, iazko jaietako irudiekin osatutako bideo bat ere proiektatuko dutela adierazi dute. Herritarrei begirako aurkezpena izango da, beraz.

Abuztuaren 14an hasiko dira Mañariko jaiak, eta hurrengo egun bietan ere egongo dira ekintzak.

**> IZURTZA**

## Aparkalekuko eta zubietako hesiak pintatu dituzte asteon

**> J.D.**

Noizerik noizera udalak egiten dituen mantentze lanen barruan, asteon aparkalekuko eta herriko hainbat zubietako hesiak pintatzen ibili dira. Hesiak burdinezkoak direnez, urteak pasa ahala burdin oxidorak erasanda egon dira.

Horregatik, lehenengo lixagailu batez gaineko ugerrak kendu die udal langileak. Ondoren, aurretik zuten koloreekin pintatu dituzte.

Lehenengo, Uresandiko (bidegorri sareko pasagunea da), Lejarza eta Etxano inguruko eta San Tomas ermitarako bideko zubietako pintura lanak burutu ditu. Gero, liburutegi pareko hesiarekin jarraitu du. Horiek denak pintura zuriz margotu ditu. Azken egunetan, berriz, Izurtzako aparkalekuko hesi luze biak urdin argiz pintatzen aritu da.

Horrez gainera, lan horiekin batera, herriguneko zein kanposantu inguruko belarra ere ebaki dituzte azken egunetan.

**> DURANGALDEA ASTEON****Dirulaguntza, euskara klasea hartu duenarentzat**

Abadiñoako Udalak eskaintzen duen dirulaguntza ikasturte honetan euskara ikastera joan diren herritarrek eskatu dezakete. Errota kultur etxean edo udal mediatekan egin ahal da. NANaren fotokopia, ordaindaintza agiria, euskaltegiaren ziurtagiria eta kontu zenbakia eroan behar dira.

**Nagusilagun programan 28 lagun batu dira**

Amankomunazgoak eraturako Nagusilagun programan 28 lagunek parte hartu dute aurten. Ekimen honen helburua, 80 urte dauzkaten pertsonen autonomia hobetzea eta menpekotasuna atzeratzea da. Estimulazio kognitiboa eta psikomotrizitatea landu dituzte, esate baterako.

**Atxondon, auzolanean 201 postontzi jarriko dituzte hilaren 27an**

Posta zerbitzua arindu eta errazteko, udalak 31 postontzi unitate (201 postontzi guztira) erosi ditu 14.800 euro erabilita. Postontziak Arrazola, Axpe, Martzaa eta Santixako bidegurutzetan ipintzeko auzolana deitu dute. Uztailaren 27an, 09:00etan ipini dute hitzordua Arrazolako plazan eta herritarrei parte hartzeko deia egin diete.

**Euromilioiaren zozketan, 117.000 euro banatu dira lurretan**

Ikusmina sortu du lurretan Euromilioiak. Herrian baten batek irabazi duela bolo-bolo dabil. Martitzeneko zozketan saritutako zenbaki bat bertan saldu zen, eta 117.000 euro irabazi ditu zortedunak.

Dantzari auzuneko administrazioan esan dute ez dakitela nork irabazi duen, eta ez dute uste bertan agertuko denik, banketxean ere ko-bratu daiteke-eta.

**> ATXONDO****Larranorako errogatiban Iriondok jaso du makilarik onenaren saria**

Urteroko ohitura da Larranora joan eta makilarik onena daroana saritzea

**> JOSEBA DERTEANO**

Axpeko Jai Batzordeak Larranoko Santa Barbara ermitarako errogatiba antolatu zuen joan zen zapatuan. Mezaren ostean, Urkiolara jaitsi ziren, bazkaritara batzeko.

200 urte inguru dira urtea joan, urtea etorri errogatiba antolatzen dutena. Bertan makila onenarekin joan dena saritzeko ohitura dute. Aurten, Juan Ramon Iriondok irabazi zuen makilarik onenaren saria, eta berari jantzi zioten txapela. Baina makilak egiteak ez ezik, erabiltzen jakiteak ere badu bere meritua.

Horregatik beste alderdi bi ere saritu zituzten. Lehenengoan, makilagaz oinez ibiltzen posturirik egokiena duena saritu

zuten: Juanjo Baseta. Makilagaz zutunik eta geldi posturirik onenari dagokion saria, ostera, Gorka Gorostizari eman zioten.



Makilaren inguruko sari banaketaren ondoren, irabazleak euren sariekkin.

**> ABADIÑO****Lau egunerako egitaraua prest, Gerediagako jaietarako****> ITSASO ESTEBAN**

Abuztuaren 2an abiatuko dituzte Salbadore jaiak Gerediaga auzoan: donien-atxa 20:00etan altxatuko dute. Bariku horretarako, beste ekitaldi bi antolatu ditu Gerediaga auzoko Jai Batzordeak: Euskal Okelagaz egindako gisatua banatuko dute 21:00etan, eta Etzilimo taldeak erromeria eskainiko du, 22:30ean.

Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolari durangarrek, Andoni Egañak eta Maialen Lujanbiok kantatuko dute, bestalde, abuztuaren 3ko Salbadore jaietako bertso saioan. Maite

Berriozabal berriztarrak emandako gaien inguruan kantatuko dute, 22:30etik aurrera. Egun horretan, asto lasterketa eta tortilla txapelketa izango dira goizean, eta Luhartzen erromeria, bertso saioaren ostean.

Abuztuaren 4an, dantza saioan, eta, bakailao eta mus txapelketetan elkartuko dira auzotarrak, eta afari herrikoia egingo dute 21:00etan.

**Arzallus eta Maia**

Abuztuaren 6an, igel, paella eta briska txapelketak jokatuko dituzte, eta umeen jolasak eta erromeria ere izango dira Gerediagan. Jai Batzordearen 40. urteurrena ospatzeko, 4 hamarkadetarako 4 kanta emanaldia eskainiko dute Jon Maia eta Amets Arzallus bertsolariek, eta goizalde horretan emango dituzte jaiak amaitutzat gerediagarrek.

**> IURRETA****Maiztegi herri eskolako jolastokiak berrizteko lanak hasiko dira gaur**

Aste bi inguru iraungo dute, eta 39.189 euro inbertituko dituzte lanetan

**> AITZIBER BASAURI**

Maiztegi herri eskolako kanpoko jolastokien asfalto konponduko du Iurretako Udalak; jolastoki horietatik jolasguneetarako pasabideak ere bai. Gaur hasiko dituzten lanetan 39.189 euro inbertituko dituzte. Aste bi inguru luzatuko dira obrak.

Gaur egun, asfaltoagaz jarritako zoladura dago jolastokietan. Hala ere, Iñaki Totorikaguena al-

kateak azaldu duenez, urte asko dira zoladura hori jarri zela, eta gaur egun oso egoera txarrean dago. Beraz, berria jarri eta kolore tratamendua emango diote. Oinezkoentzako guneak ere seinalizatuko dituzte.

Horrez gainera, jolasgunera doazen eskailerak ere kenduko dituzte, eta arrapala jarriko dute, "sarbidea erraztu eta traba arkitonikoak kentzeko".

**Sanmigeletako kartela**

Bestalde, Antton Izagirre Bravo iurretarraren *Zu ere dantzari* izeneko kartelak iragarriko ditu aurten Sanmigelak. Bederatzi lan aurkeztu dituzte, eta Jai Batzordeak egindako auresailkapenaren ondoren, bost heldu dira finalera. Herritarren esku egon da azken erabakia. Ibarretxe kultur etxean daude kartelak ikusgai.



Zoladura berria jarri eta kolore tratamendua emango diote. Iurretako udala.



**Podinara Urreta Jainaga**  
**PODOLOGOIA** 188. Elkargokidea

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • Durango  
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**

Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango  
Tel.: 94 620 27 10 - Faxa: 94 681 65 77  
e-maila: [jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

# ► Berbaz

**Maite Sanz eta Susana Lorenzo** | 'La otra otra mirada' elkarteko kideak | Zornotza eta Durango



## “Apurka-apurka komunitatearen bizi kalitatea hobetzen dabilela ikusten dugu”

Mongolian, Ulan Batorretik 30 kilometrora, lankidetzak dauzka 'La otra mirada' GKEak. Euren berri izan zuenean, Sayá Sangidorj piano jotzaile mongoliarrak proiektuetan laguntzea erabaki zuen. Eguenean kontzertu berezia eskainiko du Zornotzan

### AMAIA UGALDE

Zelan bat egin du Sayá Sangidorjek zuekin?

**Maite Sanz:** Bere senarra ezagutzen duen lagun bat daukagu. Sayá Espainian bizi da, eta Mongoliagaz oso konprometituta dago; proiektuak ezagutu zituztenean, izugarri gustatu zitzaion ideia. Kontzertu bi lotu ditu: bata Ulan Batorren bertan, eta bestea Japonen, eta horietan ateratako dirua gure proiekturako izango da. Hemen inguruan ere kontzertuak eratu ahal zirela ikusi zuen, eta Galdakaon, Zornotzan eta Donostian antolatu ditugu. Uste baino konplikatuagoa izan da. Dokumentuak, aretoak, baimenak, argia, pianoa leku batetik bestera eroatea... Saltsa horietan gabiltza.

Duela urte bi sortu zenuten 'La otra mirada'.

**Susana Lorenzo:** Orain dela lau urte inguru hasi ginen Mongoliagaz lanean, Valentziako GKE batez. Geroago, gure elkarte propioa egitea gura genuela erabaki genuen, 2011n. Hasieran, han umezurtegietatik irtendako gazteentzako etxe tutelatu bat egitea zen asmoa.

**M. S.:** Hor arazoak izan ditugu burokraziagaz, bertan lur zati bat edukitzeko GKE bat sortu

beharko genukeelako han, langile eta guzti. Guk boluntarioekin egin gura dugu lan. Azkenean, filial bat egitekotan gaude Mongolian, eta horren erantzunaren zain gaude. Hango alkatearekin berba eginda, esan zigun hango premietako bat dutxak zirela. Etxe askotan ez daukate urrik,

“*Dutxa publikoen eraikina hareazko zakuekin dabilta egiten. Sistema kuriooa, merkea eta oso ekologikoa da*”

“*Kristalezko hezurren gaixotasuna duten umeek hobekuntza handia izan dute D bitaminari eta elikadurari esker*”

ez eta garbitokirik ere. Bertako emakume batek bere lurrak utzi dizkigu lan horiek egiteko. Dutxa publiko bi egiten hasi gara, eta gero emakume hori bertan egongo da kontratuagaz lanean. Diru gutxiren truke, ur beroagaz dutxatzeko aukera emango da, eta bide batez, familia horri bizibidea emango zaio.

**S. L.:** Eraikina egiteko sistemarik merkeena eta ekologikoa bilatu gura genuen. Telazko zakuekin dabilta hormak egiten. Harez eta zementu apur batez beteta, Legoko fitxen moduan jartzen dira eta gero egurrez inguratzen dira. Oso kuriooa da, merkea eta oso ekologikoa. Ura lursaila daukan familiak daukan putzu batetik hartuko dugu, eta galdara txikitxoak erosteko asmoa daukagu.

Kristalezko hezurren gaixotasuna daukaten ume bigaz ere bazabiltzate lanean.

**M. S.:** Bai, gure elkarteko kide batek, Alvaro Sainzek, urrian ezagutu zituen.

**S. L.:** Hasieran esan zioten artritisa zeukatela. Alvaro ez zen bat ere konbentzituratu geratu; artritisa baino gehiago zen hura. Hiri barrura joan eta ospitalean azterketak egin eta gero ondorioztatzen osteogenesi inperfektua zutela. Ama gaixotasun beragaz

hil zen, baina ez zioten diagnostikatu. Senarrak jotzen zuela uste zuten ingurukoek. Ume horiek ez dira euren etxetik irten orain arte. Nagusiena, gorpildun aukian geratuko zela esan zuten, eta txikia hil egingo zela. D bitamina, esneki eta zerealen bidez, hobekuntza handia izan dute, eta ahizpa nagusia arinetan ibiltzen da jolasean, eta Alvarori ere laguntzen dio hareazko zakuekin.

Alvaro oso modu kuriosoan ezagutu zenuten, ezta?

**S. L.:** Bai. Bera DYAKo boluntarioa zen, eta Mongol Rallya egin zuen. Galdakaotik botikaz eta jostailuz betetako anbulantzia batez joan zen Mongoliara. Albistea entzun nuen justu irten zenean, eta bere ibilbidea jarraitzen ibili nintzen. Bidean denetik pasatu zitzaion. Hilabete egin behar zuen, eta hiru hilabete egin zituen azkenean! Momentu batean, injektore barik geratu zirela irakurri nuen Facebooken. Kazakhstanen-edo zegoen, geldi. Taldean komentatu, eta diruz laguntzea erabaki genuen. Asko eskertu zuen gure laguntza. Azkenean, eskalatzaile ingeles batzuk lagundu zioten. Gure dirua erabili ez zuela eta bueltatu gura izan zuen, baina esan genion, inbertitu zezala Ulan Batorren. Han hasi zen jendea ezagutzen,

eta hango beharren berri edukitzen. Orduantxe topatu zituen kristalezko hezurren gaixotasuna daukaten umeak. Neba-arreba askodun familia da. Nebetako bat meategi batean dabil lanean, bere neba-arrebentzako dirua lortzeko. Etxean oso baldintza txarretan zeudela eta laguntzen hasi zen apurka-apurka.

Nalahik izeneko auzoan zabilzate lanean. Zer moduz hartu dute zuen laguntza bertako auzokideek?

**M. S.:** Dutxak egiten gabiltzan lurretako familia oso ondo portatzen dabil gurekin, eta orokorrean, denak; gustura gabiltza. Uste dut ikusi dutela apurka-apurka gauzak egiten ari garela, eta bertako bizi kalitatea hobetzen dabilela. Dutxak egiteko, errekatik hiru tona harri ekarri zituzten zakuetarako, eta prozesuan laguntzen dabilta. Auzokideek eta umeek eurak ere asko laguntzen dute.

Zelan lortzen duzue finantzia zioa?

**M. S.:** Bazkideak daukagu, eta bila gabiltza. Itsulapikoak ere ipini ditugu hainbat tabernatan, eta Zornotzako eta Durangoko jaietan postua ipini dugu. Pultserak, zaku terapeutikoak... Egiten ditugu eskuz.



# OSASUN GIDA

## FISIOTERAPIA

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,  
behea eskuma  
48220 MATIENA-ABADIÑO

tel. 94 465 71 32 - 686 906 374

RPS: 119/13

**Oreka**  
Idurre Zabala Amezua

**FISIOTERAPIA  
ETA ERREHABILITAZIOA**

*Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua, drenatze linfatikoa (masektomia ondoren)...*

Iturriza, 44 - behe ezkerre  
48240 BERRIZ

tel. 94 622 55 93

## PSIKOLOGIA

**JON ARRUABARRENA**  
PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO  
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

tel. 94 603 32 46 - 629 245 728

RPS: 62/11

## PODOLOGIA

**JON GERRIKAETXEBARRIA**  
PODOLOGO

Gaixotasunak - Ortopedia  
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma  
48200 DURANGO

tel. 94 620 11 00

RPS: 108/13

**GOIATZ MURUA LETURIAGA**  
PODOLOGOIA

*Kiropodia, Onikopatia, Alterazio Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak*

Monago Torre, 4 - behea  
48200 DURANGO

tel. 94 620 36 30

## ESTETIKA

**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

[www.medicinaesteticaedurango.com](http://www.medicinaesteticaedurango.com)

**Laser berria:**  
*Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra*

*Obesitatea-zelulitisa,  
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...  
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botox...*

Txatxiena, 6  
48200 DURANGO

tel. 94 681 03 87

RPS: 16/09

## ODONTOLOGIA

**B. UNAMUNZAGA  
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALIZATUA

Murueta Torre, 2 - C behea  
48200 DURANGO

tel. 94 681 99 51

RPS: 145/13

**J.L. URRETA ZABALO**

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk  
48200 DURANGO

tel. 94 681 22 00

RPS: 112/13

## OPTIKA

**ZENTRO OPTIKOA**

*Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren ikusmena, ikusmen terapia, audiometria,  
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA*

Arkaraz, 3  
48240 BERRIZ

tel. 94 622 50 99

## Lizundiari, zehatzago izateko

Uztailaren 12ko elkarrizketan aitatu egiten eban Jose Luisek Iurretak ez zuela toponimia lanik oraindino. Ahaztu samar izango ei dau, baina Iurretako toponimia lana lehena izan zen Durangaldean, eta liburuaren aurkezpena 1994an egin zen Durangoko Liburu eta Dis-ko Azokan. Euskaltzaindiaren aldetik Alfontso Irigoien mahaikide izan genduelarik. Urteak aurrera doaz danontzat, ezta Jose Luis? Hi, behintzat EMERITU izatera heldu haz, zorionak! Bestiok hamentxe gabixek merituen bile!

Alberto Errazti

## Errakuntza

Abadiñok eginda dauka toponimia ikerketa eta Mallabiak hasia du. Aurreko *Anboto*n zenbait herrik toponimia ikerketa egin gabe dutela esaten zen niri egindako elkarrizketan. Oker ulertu edo errakuntza bat izan da, zeren eta Abadiñok egina du, Mila Salterainen eskutik eta udalak babesturik, neu izan naizelarik aholkulari akademikoa. Tartean enteratu naiz Mallabiak ere ikerketa hasia duela, bi bolondresen eskutik eta Onomastika zerbitzu akademikoaren aholkularitzaz. Iurretak, aspalditxo, A. Erraztiren eskutik Iurretaz ikerketa interesgarri bat egin zuen, baina, gehiago bertako herri hizkerari buruz, nahiz eta toponimia ere, neurri batean aztertu. Oraintsu esan zidan, pozik egingo lukeela Iurretako toponimiaren ikerketa osoa. Zehazki egiteko daudenak: Atxondo, Garai, Izurtza eta Mañaria dira. Ermua izan zen gure eskualdean lehenengo toponimia ikerketa egin zuena eta argitaratu ere. Gero, oker ez banago, kronologikoki, Zaldibar, Elorrio, Otxandio, Durango eta Berriz izan dira toponimia ikerketak burutu dituztenak. Errakuntza argituaz,

Jose Luis Lizundia, euskaltzain emeritua

## Kamioiek hegan egiten dute Iurretan

Asko ari gara entzuten, esaten, irakurtzen, idazten... Goiuriko zabortegeari buruz. (Aurrera jarraitu aurretik akklarazio txiki bat: inolako kontrol barik egiten den lur eta hondarren pilaketari ezin zaio "lurbetetze" izena eman; horregatik, beharrezko baimena eta ondorengo kontrola ezartzen diren bitartean, guretzat behintzat, "zabortegea" izaten jarraituko du). Iurretako udaletxean 20 tomotik gora duen espediente bat omen dago, istorio honekin lotuta; tartean hainbat azpi-espediente ere badaudela entzun dugu.

Ez da gure asmoa gai honen inguruan nahasmen handiagora sortzea; jadanik badaude hainbat iritzi, denuntzia, informe, kontrainforme, deklarazio... Eta guk entzun eta irakurri dugunez, gaiak baditu epai bide batzuk irekita. Bada, honaino helduta, utz dezagun konpon-tzaileen eskuetan korapiloaren konponketa. Politika inguruan murgiltzen garen sasipolitikoak sarritan edukitzen ohi dugu azalpenak emateko beharrezkoak, eta orokorrean, berandu, oker eta nahiko aldrebes ibiltzen gara, eta gehienetan nahasmena handitzea baino ez dugu lortzen; egiari zor, guk ere baditugu etxerako lanak egiteke, baina hori lotsarik gabe aitortzen dugu.

Pasa den astean, Iurretako Udaleko Bildu taldeak prentsurreko bat eman zuen, eta bertan luze eta zabal aritu ziren Goiuriko zabortegeari buruz, baina azpimarra jarri zuten Goiuriko bidearen erabilera-aren aferean. Azaldu zutenaren arabera, Lukubaso enpresak hainbat bider eskatu ondoren, bi bider eduki du indarrean Bizkaiko Foru Aldundiak Goiuriko bidea erabiltzeko emandako baimena: lehena, 2005ean; baina Aldundiak ikusketa egin ondoren, aurretik emanda-

ko baimena ez-onartutzat eman zion. Bigarrena 2011n. Espreski pista baten barruan gertatu zen lurjauzi bat konpondu ahal izateko eman zion baimena Aldundiak; argi ipintzen du baimenaren agirian: "soilik konponketa lanak egiteko dela eta inolaz ere, ezin dela erabili aipatutako baimena beste edozein ekimenetarako".

Bilduk oso argi erakutsi zuen prentsurrekoan bigarren baimen hau aprobetxatuta Lukubaso enpresak lotsagabe ekin ziola zabortegean hondar pilaketak egiteari. Baina ez gara horretan luzatuko, nahasmena alboratzea baita gure asmoa.

Bizkor eta agudo agertu da gure alkate jauna eskatu bako azalpenak ematera; eta nola ez, korapiloa askatu ordez, gehiago lotzea baino ez du lortu.

Alkate jauna, zuk esan duzunez, gauza bat da "lurbetetze"-aren proiektua (zuk horrela deitzen diozu), eta horrek bere prozedura dauka; eta beste gauza bat, Goiuriko bidea erabili ahal izateko baimena lortzeko prozedura. Bi prozedura bereizi dira, eta beraien tramitazioak administrazioiko bi instituzio ezberdinei dagozkie. "Suertatu daitekeela bat edukitzea eta bestea ez edukitzea". Hau ere esan omen duzu, behintzat guk horrela irakurri dugu.

Alkate jauna, nola gertatu daiteke: eremu batean jarduteko baimen bat eduki, baina bertara heltzeko baimenik ez edukitzea? Gu ere instituzioetan gaude berritxo, ez omen zara konturatu?, eta bada-kigu administrazioiko erakunde ezberdinen arteko kontraesanak, oztopoak, ... nahi baino maizago sortzen direla; baina halakoetan ere, herri ordezkariak garen neurrian, gu behintzat, herritarren eskubideak lehenesten saiatzen gara. Alkate jauna, zeintzuk dira zure lehentasunak? Dirudienek, Lukubasoren interesak babeste-ko lehentasuna duzu; edo agian, Lukubaso enpresaren alde egite-ko lehentasuna duzute nonbaiten edota norbaitek? Doala hemendik, animoz betetako besarkada bat gure miresmena merezi duten Goiuriko Kofradiako kideei, nahigabe guztien aurrean erakutsi dizkiguten kemena eta ausardia goraipatu nahi genituzke.

Alkate jauna, nola liteke, Goiuriko bidea, nahiz eta Aldundia- ren eskuduntza izan, erabiltzeko baimenik gabe, Iurretako esku- duntza den Lukuko bidea lotsagabe eta inolako kanonik ordaindu gabe erabiliz, eta 2010eko abendura arte inolako udal baimenik eduki gabe, Lukuko Trokan gutxienez 200.000 m<sup>3</sup> hondar pilatu izatea? Alkate jauna, nondik pasatu dira lur eta hondakin guztiak eroan dituzten kamioiak? Agian, Iurretan kamioi hegalaria ibili dira, eta gu enteratu ere ez gara egin

Alkate jauna, dakizunez, Goiuriko auzotarrek kexa mordoa aur- keztu dute zuk zuzentzen duzun udalean. Ziur gaude Iurretako Udaleko udaltzainek ere informe batzuk behintzat egin dituztela.

Alkate jauna: Bideratu dituzu inoiz kexa horiek Aldundira? Hartu duzu neurri- ren bat auzotarren kexak beste nonbaitera zuzentzeko?

Eman diezu aholkuren bat: nora jo edo nora zuzendu beraien kexak? Lagundu diezu nonbaitera? Edo norbaitengana?

Alkate jauna, zuk Pilatosena egin duzu, hau da, eskuak garbitu, eta ardurak besteei leporatu. Umeez ere sarritan egiten dute hori: gaiztakeriaren bat gertatu eta errieta egiten dietenean, euren ohi- ko erreakzioa: "...ez ama, ni ez naiz izan...".

Arazoa, alkate jauna, oso serioa da; eta ondorioak are serioagoak izan daitezke, azken batean, istorio honetan norbaitek galtzeko- tan, Goiuriko auzotarrek edota Iurretako herritarrek galduko dugulako. Orain dela gutxi, Aldundiak Goiuriko bidearen zati bat konpondu eta udalaren esku utzi du. Alkate jauna, ahaztu bazaizu ere, kanposantu eta futbol zelaiak baino gorago, Goiuriko auzoan ere, Iurretarrak bizi dira

Iurretako Bildu

## SEI HANKAKO MAHAIA

**IDOIA AGORRIA**  
PSE-EE



## Marmotaren Eguna B-rekin

Eguna joan eta eguna etorri, izen- buru berberak jartzen dizkigute he- dabide, egunkari, telebista eta irrati- guztiek, gaizkile berberak hizpide hartuta -albisteari ez ikusia egiten dioten PPren kideko hedabideek izan ezik-. Eta badirudi, marmota- ren egunean bezala, dena etengabe errepikatzen dela, ezer aldatu gabe. Hala ere, azkenean, justizia lanean hasten da, eta Bretón bezalako hil- tzaileak zigortzen ditu, eta Berlusco- ni bezalako politikari ustelak ere bai. Bazen garaia! Baina, Bárcenas? Gidoi onak presta genitzake haiek oinarritzat hartuta, beldurrezko filmak egiteko gidoi ezin hobek: Bretón, emazteari kalte egiten jarraitzeko, seme-alabak hil zituen aita. Berlusconi, hedabideetan gehien azaldu den eta historian izan den politikaririk ustelena. Bárcenas, gobernatzen duen alder- diko diruzaina, modu geroratuan kaleratua izan ondoren, Rajoy presidenteari xantaia egiten diona.

Izan ere, ezetz esaten badute ere, Bárcenasek xantaia egin dio PPri. Horregatik ordaindu diote soldata, eman diote kalte-ordaina, eta idatzi dizkiote mezuak adore emateko. Itxura denez, gertakariak, epaile- ren aurrean egindako adierazpe- nek, dokumentu frogatzaileak eta adituen probek argi seinatu eta inguratu dituzte Gobernuko presi- dentea eta bere taldea. Hala, bada, lar- rutik ordaindu beharko dute. Alde batetik, diru beltzaren kontabilita- tea, gainsoldata zuten gutun-azalen bidez egindako ordainketena; eta, bestetik, finantziario ustela, obra eta zerbitzuen kontratu publikoak esleitzegatik PPK kobratu zuena.

Politikan, ustelek larrutik or- daindu behar dituzte egin dituz- ten delituak, justiziari arina izan behar du, eta herritarren uste osoa berreskuratu behar da ezinbestez. Asteartean idatzi dut artikulua hau, eta ostiralean argitaratuko da. Ea, bada, ordurako egonkortasun poli- tikoa aitzakia gisa erabiltzen ez den, eta Rajoyk dimisioa aurkeztu duen.

## Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du




Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
publi@anboto.org

2013ko uztailaren 12a  
11. urtea - 510. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretzi Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.  
**Maketazioa:**  
Nuria Hernández.  
**Zuzentzailea:** Goiatz Etxeita.  
**Argazkilariak:** Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

**> DANTZA**

# “Aditua ez den publikoa dantza garaikidera erakarri gura dugu: ulertterraza da ikuskizuna”

Donostiako Dantzas konpainiaren zuzendari nagusia da Fernando Saenz de Ugarte nafarra. Elorrioko Musikaire jaialdian emanaldia eskainiko dute uztailaren 27an, herriko plazan. Zuzendariak aurkeztu du Dantzas taldearen ‘Kameleonia’ lana



Maiatzean Donostian aurkeztu zuten ikuskizuna, eta datorren urtean estatuan eta nazioartean erakutsiko dute. J.Usoz

Fernando Saenz de Ugarte, konpainiaren zuzendari nagusia.

**> ITSASO ESTEBAN**

**Konpainia honetan hasi aurretik kultur programatzaile ibilia zara. Zer nabarmenduko zenuke ikuskizun honetatik?**

Barañain Auditorioan kultur programatzaile ibili nintzen sasoiari, hain justu, dantza garaikidea publiko orokorrari helarazteko baliatzen nuen Dantzas konpainia: aditua ez den publikoa dantza erakarri gura dugu, eta horretarako, ulertzeko errazak eta oso plastikoak diren ikuskizunak sortzen ditugu.

**Elorrioren eskainiko duzuen hiru koreografia lanen batura da.**

Bai. Itzik Galili koreografo israeldar-herbeheretarrarenak dira lehenengo bi lanak. Azken urteetan elkarlanean jardun dugu berarekin: Dantzas ezagutu zuenean, oso harrিতuta geratu zen gure lanarekin eta gure dantzariak daukaten energiarekin. Oso gustura ibili gara berarekin, eta elkarlanean jarraitzen dugu. Hirugarren pieza, Jacek Przybylowicz koreografo poloniarrek sorturikoa da. Oso koreografia klasikoa da, batetik, baina aldi berean, mugimendu klasikoak apurtu eta azkartu ere egiten dituen. Oso koreografia polita eta iradokitzailea da.

**Musika garaikidea eta klasikoagoa baliatzen duzue?**

Batetik, John Cagen musika garaikidea darabilgu piezetako batean, baina bestetik, alboka eta

txalapartaren edota Donostiako danborradaren doinua, eta musika barrokoa ere erabiltzen ditugu *Kameleonia* ikuskizunean: oso nahaste polita eskaintzen du ikuskizunak, baita musikari dagokionez ere.

**Zein da Dantzas konpainiaren helburu nagusia?**

Dantza munduan lehenengo lan profesionala izateko aukera eskaintzen die Dantzas konpainiak dantzariari: hori da konpainiaren berezitasun nagusia. Europa osoko dantzari gazteak

hartzen ditugu gure plataforman, eta konpainian lan egiteko aukera ere ematen diegu.

**Zenbat dantzarik jardungo dute Elorrioko emanaldian?**

Europa osotik etorritako hamar dantzarik jardungo dute Elorrioren: Frantziako hiru dantzarik, hiru euskaldunek, katalan bik, norvegiar batek eta herbeheretar batek. Denboraldi bakoitzean, konpainia erdia berritzen dugu: bostek lana hartzen dute, eta haien lekua dantzari berriek betetzen dute.

**Dantza garaikidea ez ezik, kalitate handiko musiken askotariko eskaintza dakar Elorrioko Musikaire jaialdiak beste bi astebururako.**

Gaur, 22:30ean, esaterako, Hasier Oleaga bateria jotzailearen boskoteak jardungo du Tola jauregian. Euskal Herriko jazz musikari handiekin eskainiko du *Cantus Caterva* diskorako sorturiko musika: Iñaki Salvador pianistak, Jon Piris kontrabaxistak, Mikel Andueza saxofonistak eta Julen Izarra saxo tenorrek lagunduko dute Oleaga.

Gaurkoaz gainera, bihar ere, haizetarako musika izango da Elorrioren gozagai: folk doinuak berritzen di-

tuen eta erroak Murtzia eta Ingalaterran dauzkan Alondra Bentleyk joko du bihar, Tola jauregian. Ezin leku aproposagoa Bentleyren musika “paisajista, bukoliko eta baikorra” entzuteko.

Dantzas konpainiaren ikuskizunak, eta munduko musiken zuzeneko emanaldi bik itxiko dute Musikaire 2013, datorren asteburuan: uztailaren 26an, koraren doinu afrikarrak, eta biolontxeloaren, akordeoiaren, teklatuaren eta perkusioen erritmoak uztartzen dituen Valentziako Diouke taldeak joko du. Uztailaren 28an, plazan kontzertua eskainiko du Vieux Farka Touré “Saharako Hendrix”-ek.

**“**

*Elorriok badu oso gauza berezia: emanaldia enparantzan eskainiko dugu”*

**Zer ibilbideko dantzariak dira?** Oinarri klasikoa dute denek (konpainian sartzeko baldintza da hori), eta alde fisikoa asko landu duten dantzariak dira.

**Elorrioko Musikaire iaz ere egon zineten. Zer oroitzapen?** Artean erakutsi genuen iaz, bai, eta euriak leku aldaketa behartu arren, oso oroimen polita daukagu. Elorriok badu oso gauza berezia: emanaldia enparantzan egingo dugu. Aukera paregabea da gure eskaintza ahalik eta jende gehienari erakusteko.

## Kalitate goreneko hiru proposamen musikal



**> ITSASO ESTEBAN**

Santa Marinako jaiak ospatzen dabilta Zaldibarko Goierri auzoan eguaztenetik. Gaur, zortzigarren aldiz antolatu duten jaien barruko musika jaialdia izango da. Durangaldeko hiru musika talde gonbidatu dituzte aurten go jaialdian jotzera: Zaldibarko hainbat taldetan jardundako musikariek kontzertu honetarako propio sorturiko Superfluos taldeak, Mallabia, Zaldibar eta Eibarko kideek osaturiko Damudot taldeak, eta Elorrioko Sermond's taldeak joko dute.

Hain zuzen, Durangaldeko musika taldeei oholta eskaini eta auzoko jaietan musika eskaintza zabala egin ahal izateko helburuz hasi ziren Goierri auzoko jaialdia antolatzen. Jaiak antolatzen dituzten herritarrek Gari Rock elkartearen laguntzagaz antolatu dute kontzertua.

**> MUSIKA**

## VIII. Goierri Rock: Superfluos, Damudot eta Sermond's aukeran

Herriko musikariek sorturiko Superfluos, eta Durangaldeko Damudot eta Sermond's taldeek joko dute gaur, 22:30ean, Zaldibarko Goierri auzoan

Talde ezagunen kanten bertsiok eskainiko ditu Superfluos taldeak; iazko maiatzean kaleratu zuten diskoko kantak

Jaietako antolatzaileek Gari Rock elkartearen laguntzagaz eraten dute musika jaialdia

eskainiko dituzte metal doinuak jotzen dozena bat urte daroaten Damudot taldekoek; eta, aurten udaberrian aurkezturiko *Bidegurutzean* diskoko kantak zuzenean joko ditu Elorrioko Sermond's taldeak. Entzuleek gustukoaren duten Sermond's-en zuzeneko esentzia eskainiko dute kontzertu horretan ere: dinamismoa eta energia.

Besteak beste, Zaldibarko Disorders edo NoiseX taldeetan

ibilitako musikariek osaturiko Superfluos taldea da aurten herriko gonbidatua. Kontzertuen ostean, bolo jokoa egingo dute.

Udaberrian aurkeztu zuten *'Bidegurutzean'* diskoko kantak joko dituzte Sermond's taldekoek



Sermond's.



Damudot.

**> DANTZA**

## Turkiako Gökmeydan taldea gonbidatu du Kriskitinek Durangoko folklore jaialdira

Durangoko Nazioarteko Folklore jaialdiaren XIII. edizioan, Uda Kalean Bizi egitarauaren barruan, emanaldia eskaintzera

gonbidatu du Kriskitin taldeak Turkiako Gökmeydan taldea. Uztailaren 24an, 22:00etan, Durangoko Andra Mariko elizpean

eskainiko dute dantza ikuskizuna: Euskal Herriko dantzak eskainiko ditu Kriskitinek, eta euren herrialdeko folkloreak erakustaldia egingo dute dantzari turkiarrek. Herrialde hartako gazteria Turkiako kulturaren eta tradizioaren hezteko, 2004an sortu zuten Gökmeydan elkarteak. Emanaldian, Turkiako herrialdeetako dantzak biltzen ditu.

2001. urtean antolatu zuen Kriskitinek Durangoko Nazioarteko Folklore jaialdia lehenengoz, eta harrezkero, urtero jarraitu du jaialdia prestatzen eta dantzaldia eskaintzen: "Kanpokoei etxekoa erakustea eta kanpokoa bertan, herrian, ikusgai jartzea" helburu hartuta.

**Eskaintza berriak**

Azken urteetan, sarri joan izan da Kriskitin Euskal Herriko eta Durangaldeko dantzak Europan eta Ameriketara erakustera. Joan zen asteburuan, adibidez, Segoviako nazioarteko jaialdian parte hartu dute, baina diru faltagatik eta dantzarien lan agendagatik, ezetza eman behar izan diote beste gonbidapen bati.

**GEURE DURANGALDEA**

AINHOA URIEN

Ikaslea

**Gogor ein!**

"Gogor ein". Hitz horiekin animatzen gaituztenetik errazagoa da irribarre batekin aurrera jarraitzea. Badakigu burbuila batean sarrarazitakoak garela, ekuazio guztietako x, eta taberna klandestinoetan erresistentziako kantak xuxurlatu zituztenak oroitzen ditugula, bizi gabekoaren txingarratik kea baino zerbait gehiago berpiztuz. Konturatu ginen, ikasketak ez direla ideiak kontsumitzea, baizik horiek sortzea; giza historiaren gehiengo zabalean askatasunaz berba egin dela, hura zehaztera iritsi gabe, baina norbait libre dela ikustean denok beldurtzen garela. Oraindik konturatzen gara utopia ortzemuga bezalakoa dela, berarengana hurbiltzen zaren heinean bera urrundu egiten da, eta horregatik balio duela oinez jarraitzeko. Honengatik guztiagatik eta zerbait gehiagorengatik tinko eutsi genion geure izateari, eta hitz egiten segitzen dugu, zeresana ematen; mintzatuz ere ahantz baitaiteke, isilduz adina. Badirudi batzuetan ulertuak ez izatearen etsipenak itotzen gaituela, eta halakoetan beste alde hark idatzitakoa berrabesten dugu: "Sasiek loreak estali orduko itzuliko zinela zin egin zenigun, eta azken aldian masustak baino ez ditugu ikusten, haien azpian, ezkurtuan zimeltzen hasitako petaloak; itxarroteaz nazkatu diren erle langileak, jada gure loreak zurrupatzera ez datozenak". Zeru utopiko harekin amets egiten dinagu hodeien itxurak irudikatzean, zaukaagun bizitza onartzen ikasi dinagu. Aska hitzan lokarriak, eta goazen orbel gorrien zirrikituetatik; hel nazan eskutik eta bizkor hadi, zubiak eraitsi aurretik pasatuko dinagu ibaia, eta tabako-orria errez literaturaz mintzatuko gaitun harantzagokoekin.

**BODEGUILLA**

**TRAÑA-MATIENA**  
Tel.: 94 681 43 85

**MATERIAL DE CONSTRUCCION MACOBER**

**ERAIKUNTZARAKO MATERIALA BERRIZ, S.L.**

**BILTEGIA ETA ERAKUSTOKIA**  
Eitua Industriagunea, 66  
Tel./Faxa: 94 682 78 90  
48240 Berriz (Bizkaia)  
macober@movistar.es

Zeramika eta gresen salmenta • Zementuak - isolamenduak  
- pladurra... • Eskaintzak lehen mallako zeramiketara •  
2. mailako baldosak trastelekuetarako.

**Den-dena MACOBERren, Berrizen!**

**hitz**


**liburudenda**

artekalea 14 durango 94 681 07 76

info@hitzliburudenda.com

# JAIAK!

2013ko UZTAILA | Garai, Mañaria eta  
Mallabia



# GARAIKO JAIEN EGITARAUA

## Uztailaren 24a, eguaztena

**20:00** Donien-atxa jasotzea.

Ondoren, ezpatadantzarien saioa herriko plazan.

**23:00** Txomin Bedarra taldearekin erromeria.

## Uztailaren 25a, eguena Santixau eguna

**10:30** Txistulari, dantzari eta agintarien kalejira.

**11:00** Meza nagusia San Migel elizan.

Ondoren, ohiko Santiago imajinaren prozesioa Elizaberriraino apostoluari omenaldia eginez, Agintariena eta Gernikako Arbola dantzatzuz.

Ostean, ezpatadantziariak herriko plazan.

**18:00** Erregelen erakustaldia.

**23:00** Elortza eta Iñaki Larrañagarekin erromeria.

## Uztailaren 26a, barikua

**10:30** Txistulari, dantzari eta agintarien kalejira.

**11:00** Elizaberrin, meza nagusia. Ondoren, bezperako ospakizunak osatzeko, Santiago imajinaren prozesioa parrokiaraino.

Gero, ezpatadantziariak herriko plazan, eta jarraian, ezkonduetako andren erregela.

**19:00** Tortilla txapelketa. Partaideek ekarri beharko dute dena: sua, arrautzak, olio, kipula, patata eta gatza.

**21:30** Erromeria Ezten Giro taldearekin.

## Uztailaren 27a, zapatua

**13:30** Trikipoteoa.

**14:30** Bazkari herrikoia.

Ondoren, Ansorregi taldearekin erromeria.

**23:30** Erromeria Triki Ta Ke talderekin.

## Uztailaren 28a, domeka

**11:30** Berehalako briska txapelketa plazan. Izen-ematea 10 euro bikoteko.

**14:30** Jubilatuen bazkaria.

**18:00** Asto proben erakustaldia:

- Pozuzarreta elkarte

- Satxibar

- Iñaki Erleaga

- Alberto Plaza (Berriatua)

## Uztailaren 29a, astelehena

**12:00** Pailazoak.

**18:00** Berehalako mus txapelketa plazan. Izen-ematea 10 euro bikoteko.

## Uztailaren 30a, martitena

**12:00** Umeen jolasak.

**18:30** Desafioa, lurretako gazteak eta Garaiko gazteak giza proban.

**23:00** Erromeria Luhartz taldearekin.

## Uztailaren 31, eguaztena San Inazio eguna

**12:00** Umeen jolasak.

Ondoren, dantzariak.

Jarraian, Durangaldeko Igel Txapelketa. Izen-ematea 2 euro.

**18:30** Asto proben erakustaldia:

- Partiliku elkarte

- Maiora elkarte

- Victorio Celaya

- Zubibarri

**22:30** Erromeria Txomin Bedarra taldearekin.

**24:00** Errifaren zozketa.

Ondoren, txokolata.



Santixau jai  
zoriontsuak  
opa dizkizuegu!



GARAIKO UDALA



## Santiagotik San Inaziora, dantzan geratu barik

Uztailearen 24tik 31ra bitartean erromeriaren plaza izango da udaletxe albokoa

### > MARKEL ONAINDIA

Herri girokoak eta dantzaren bueltakoak. Izaera horretakoak dira, batez ere, Garaiko jaiak. Uztailearen 24tik 31ra bitartean erromeriaren plaza izango da udaletxe albokoa. Santiagotik San Inaziora, dantzan geratu barik ibiliko dira garaitarrak eta inguruetatik bertaratzen diren jaizaleak.

Egunez eta gauez egongo da zer egin Garain. Iluntzetik aurrera, musikak hartuko du indarra, erromeriak, gehienbat. Hainbat taldek joko dute Garaiko eszenatokian. Ezagunena, akaso, Luhartz. Udan herririk herri ibiliko dira, eta Garain ere ez dute hutsik egingo. Uztailearen 30ean izango da Luhartzen emanaldia, San Inazio bezperan. Jaien antolatzaile den Trumoitte kultur elkarteko kideek esan dute urtero mantentzen duten zita

dela Luhartzena, eta jende asko batzen dela. Gainerako taldeen inguruan, nobedade legez Ezten Giro talde gipuzkoarra ekarriko dute; hilaren 26an eskainiko dute euren musika.

Hilaren 27an elkartuko dira mahaiaren bueltan; arrakasta duen ekitaldia da herri bazkaria

Beste ekitaldi arrakastatsu bat tortilla txapelketa da; hilaren 26an egingo da, 19:00etatik aurrera

Erromeriaz aparte, egunez ere dantza ugari egingo dute garaitarrek. 26an, Santa Ana egunez, Ezkonduen Eguna ospatuko dute. Lehenengo gizonak dantzari dantza egingo dute, eta ostean, andrekin erregelak. 31n, osteran, umek irtengo dute dantzara.

### Herri giroa sortzen

Trumoittekoek azaldu dute herri giroa sortzen dutelako antolatzen dituztela erromeriak. Baita herri bazkaria ere. Hilaren 27an elkartuko dira mahaiaren bueltan; arrakasta duen ekitaldia da herri bazkaria. Iaz, esaterako, 100 lagun inguru batu ziren.

Beste ekitaldi arrakastatsu bat tortilla txapelketa da; hilaren 26an egingo da, 19:00etatik aurrera. Parte-hartzaileek eroan beharko dituzte sua eta osagaiak. Lehenengo sailkatuak 70 euro eta garaikurra jasoko ditu.

## Errebantxa egingo dute Garaiko eta Iurretako probalari gazteek

Zortzi gazte egongo dira talde bakoitzean; 540 kiloko harria mugitu beharko dute 20 minutuan

### > M.O.

2012ko Iurretako San Migel jaietan desafioa egin zuten Garai eta Iurretako zenbait gaztek. Harriari tiraka ibili ziren, ea nor egin unte gehiago. Garaitarrak izan ziren garaile, eta orain iurretarek errebantxa gura dute. Uztailearen 30ean egingo dute berriro proban, arratsaldeko 18:30ean hasita.

San Migel jaietan garaitarrak izan ziren garaile; orain iurretarek errebantxa gura dute

Zortzi gazte egongo dira talde bakoitzean. 540 kiloko harria mugitu beharko dute, 20 minutuko beharrean. Jokin Arregi garaitarra ibiliko da epaile, eta azaldu duenez, apartakiekuan egingo dute proba, ez probalekuan: "Probalekua ez da lar ona oinez ibiltzeko", arrazoitu du.

### Giroa sortu guran

Iurretako desafioak arrakasta eduki zuen, jende ugari hurreratu zen-eta. "Espero dugu Garain ere egotea", esan du Arregik. Giroa sortu gura dute ekimen honeguz: "Ea denon artean sekulako eguna pasatzen dugun".



# MAÑARIKO JAIEN EGITARAUA

## Abuztuaren 14a, eguaztena

**19:00** Andra Mari dantza taldearen alardea.

**20:00** Txupinazoa, kanpaiotsa eta Pitxitxiren igoera.

**21:30** Herri afaria.

**23:00** Erromeria Lotxo taldearekin.

## Abuztuaren 15a, eguna Andra Mari eguna

**10:00** Kalejira txistulariekin.

**11:00** Meza Kirikiño abesbatzaren parte-hartzearekin. Ondoren, dantzariak.

**12:00** Umeen jolasak.

**13:00** Herriko pilota torneoaren finalak.

**16:00** Umeen jolasak.

**17:00** Karabina jaurtiketa (Ateneo Cinegetiko Mugarrak antolatuta).

**17:00** Mus txapelketa.

**20:00** Txistorrada.

**22:30** Antzerkia: *8 begi lau dimentsio* komedia (Gilkitxaro antzerki taldea).

## Abuztuaren 16a, barikua

**11:00** Meza.

**12:00** Paella txapelketa.

**14:00** Paellen dastaketa.

Bazkaldu ondoren, kalejira Txomin Bedar trikitilariarekin.

**17:30** Briska txapelketa.

**22:30** Kontzertuak: Arcada Social, Hesian eta Vendetta.

**24:00** Pitxitxi erretzea.



Ondo pasatu  
Andramari  
jaietan!



MAÑARIKO UDALA



## Herri afari handiagoo eta Afrikaz jantzitako Mañaria Andramarietan

Abuztuaren 16rako Mozorro Eguna antolatu du iaztik handitu egin den Jai Batzordeak

### > AMAIA UGALDE

Gaur aurkeztuko ditu jaiak Mañariko Jai Batzordeak. Iaz berreskuratu zuten batzordea, eta aurten jende gehiago batu da bertara; 17 pertsonak parte hartu dute. Azken gauzak lotzen ibili dira asteon. Gaur, aurkezpena egin eta gero hasiko dira, adibidez, herri afarirako txartelak saltzen. Iaz 180 ticket prestatuta, guztiak saldu zirela azaldu du Eneritz Areitio Jai Batzordeko

Mozorro Eguna antolatu du Jai Batzordeak eta Afrika ipini dute aurten gai moduan

kideak: "Jendea txartel barik geratu zen, eta horregatik pentsatu dugu aurten 220 ateratzea".

Herri afariak gainera, paella txapelketan ere jende asko batu da abuztuaren 16an. Egunari "bizitasun handiagoo emateko" Mozorro Eguna antolatu du Jai Batzordeak, eta Afrika ipini du gai moduan.

Pitxitxi jaietako panpina laster prestatuko dute herriko umeek. Jaietan mañariarrek eta herriko elkarteek duten parte-hartzea nabarmendu du Areitio: "Txosnetan txandak egiten, garbiketara... ezinbestekoak dira". Horregatik txupinazoa elkarteetako batek bota du urtero; aurtengo arduraduna zein den gaurko aurkezpenen jakin eragingo dute.



## Arcada Social, Hesian eta Vendetta taldeen kontzertuak

Abuztuaren 16an rock doinuak izango dira Mañarian; bezperan, antzerkia



### > A.U.

Ohikoa denez, hiru gau oso desberdin izango dira Mañariko jaietan: lehen egunean, Lotxo taldearekin erromeria edukiko dute. Andra Mari egunean, *8 Begi* antzerki komedia, eta amaitzeko, barrikukoa kontzertuen gaua izango da, Arkada Social, Vendetta eta Hesian taldeekin.

Jaiak bisitari gehien abuztuaren 16ko kontzertuetan izango dute seguraski. 22:30ean hasita, Arkada Social talde arrasatearren punk doinuak izango dira lehenengo. Iaz ziklo berri bat

hasi zuen taldeak *Beste istorio bat* diskoa kaleratuta. Hesian taldeak, ondoren, doinu dantzagariak ekarriko ditu. Aurten bosgarren diskoa atera dute, *Hemen eta orain* izenekoa. Oholtzara igozten azkenak Vendetta taldeko nafarrak izango dira. Euskaraz

'8 Begi' antzezlanaren komedia-simposium-absurdu legez definitu du Gilkitxaro antzerki taldeak

eta gaztelaniaz rock eta ska doinuak eskainiko dituzte.

### Antzerkia, lehenengoz

Andra Mari egunerako, bezperako parrandaren ostean indarrak batzeko plana pentsatu du aurten Jai Batzordeak. Gilkitxaro antzerki taldeak *8 Begi* antzezlanaren eskainiko du. Komedia-simposium-absurdu legez definitu dute Gilkitxaroko kideek *8 Begi*. Aktore bik zortzi begiz eta haika betaurrekogaz baliatuta bizitza ikusteko fundamentu berria topatuko dute.

Eguneko menuak 9,60 euro  
astelenehenetik ostiralera  
12:30 etatik 15:00 arte

Asteburuetan afariak  
ogitartekoak, entsaladak,  
hamburgesak, razioak, ...  
20:30 etatik 23:00 arte



**ERREKONDO**  
JATETXEA

94 681 85 77

Andra Mari, 11 - Mañaria  
errekondo taberna



**HERRI-TABER**

EGUNEKO MENUA - PLATER HONDEKATUAK  
KAZUETAKOAK - DIGITORTOKOAK  
OTORDUAK ENKARGATU

Herriko plaza. Tel.: 94 620 02 78 MAÑARIA

*Launa plus*  
Ondua

Bodegas *Launa*  
Arabar Erriaxa

www.bodegaslauna.com info@bodegaslauna.com Tel.: 94 682 41 08

**HARATEGIA - URDAITEGIA**  
**BIZKARRA**  
BASERRIKO OKELA  
TXORIZOAK ETA  
ODOLOSTEAK

Tel.: 94 681 69 45 • Mug.: 615 78 12 47 • 48212 MAÑARIA (Bizkaia)

**JAVIER BIZKARRA GARRAIOAK**



Karga erabilgarria 18000 kg | Andra Mari, 19-1D | Tel.: 659 178 332  
Mañaria (Bizkaia)

# MALLABIKO JAIEN EGITARAUA

## Abuztuaren 11, domeka

**12:00** Euskal Herriko nesken gomazko paleta zirkuituko finalaurrekoak, Mallabia I Kirol Etxean.

## Abuztuaren 14a, eguaztena Umeen Eguna

**11:30** Umeen txupinazoa botako du Alkate Txikiak.

**12:00-14:00 / 16:00-18:00** Umeentzako parke berezia: puzgarriak, jumping, etab., parkean.

**18:00** Bits festa parkean.

**19:00** Txupinazoa Gazte Alai dantza taldearen eskutik.

**19:30-21:00** Txokolatada (Izar Gorri elkarteak antolatuta) eta erromeria Luhartz taldeagaz plazan.

**21:00** Pilota partiduak Mallabia I Kirol Etxean:

1- Euskal Herriko nesken gomazko paleta zirkuituko finalak.

2- Elezkano-Larunbe / Rico-Aretxabaleta.

3-Bengoetxea-Beroiz / Olaizola II-Zabala.

**23:30** Erromeria Luhartz taldeagaz, plazan.

## Abuztuaren 15a, eguna Andra Mari Eguna

**11:00** Meza nagusia.

**12:00** Kalejira plazatik frontoira, bertsolariekin eta Gazte Alai dantza taldeagaz. Ondoren, Beñat Ugartetxea eta Onintza Enbeitak euren emanaldia eskainiko dute, frontoian.

**17:30** Mallabiko XXIII. Harri-jasotze saria (harri txikia):

- Inhar (Bizkaia)

- Galarraga (Gipuzkoa)

- Gusta (Gipuzkoa)

- Izeta III (Gipuzkoa)

- Lopategi (Gipuzkoa), 16 urte.

- Izagirre (Gipuzkoa), 18 urte.

- Otaegi (Gipuzkoa), 19 urte.

- Urrutia (Nafarroa)

**17:30** Tute, mus eta briska txapelketak tabernetan.

**23:00** Oskorri: *Gabriel Aresti bizsitan*, parkean.

## Abuztuaren 16a, barikua San Roke Eguna - Nagusi eta Koadrilen Eguna

**11:00** XIV. Paella eta II. Marmitako Lehiaketarako izen-ematea.

**12:00** Meza nagusia.

**14:00** Jubilatuen bazkaria frontoian. Bazkalostean, Mallabiko trikitilariak eta bertsolariak (Mañukorta eta Juan Mari Areitio) egongo dira.

**17:30** Taldeen arteko jolasak.

**20:00** Mallabitar guztientzako sagardoa doan eta txerri errea.

**20:30** Erromeria plazan. Garilak 26

**XXV. Idi Proba Txapelketa**, abuztuaren 23an, 24an, 25ean eta 26an. Izen-ematea: abuztuaren 4an (domeka), eguerdiko 12:00etan, udaletxean.



## Alkate txikiaren pregoiak abiatuko du abuztuaren 14an umeen eguna

Eskolako seigarren mailako ikasleek irakurriko dute pregoia, eta eurek botako dute txupina

> I.E. Andra Mari jaien barruan, Umeen Eguna ospatuko dute abuztuaren 14an, Mallabian. Herri eskolako seigarren mailako ikasleek botako dute jaien hasierako txupinazoa, eta alkate txikiak irakurriko du pregoia, 11:30ean. Bigarren urtea da jaien hasieran Alkate Txikiaren irudia baliatzen dutena.

Umeentzako, hainbat ekintza prestatu dituzte egun horretarako.

Pregoi txikiaren ostean, 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, umeentzako gunea prestatuko dute parkean: puzgarriak, *jumpinga* eta beste hainbat jolas izango dituzte gozagai. Ondoren, 18:00etan, bits festak hartuko du Mallabiko plaza.

Iluntzean, helduei pasako die Alkate Txikiak aginte makila, eta 19:00etan, Gazte Alai dantza taldekoek botako dute nagusien txupina. Jarraian, txokolatada eta Luhartzen erromeria izango dira.

Pregoi txikiaren ostean, 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, umeentzako gunea, parkean



## Arestiren poesiari omenaldi musikala egingo dio Oskorrik

Abuztuaren 15ean, 23:00etan aurkeztuko du Oskorrik 'Gabriel Aresti Bizsitan'

### > ITSASO ESTEBAN

*Gabriel Aresti Bizsitan* ikuskizuna eskainiko du Oskorrik abuztuaren 15ean, 23:00etan, parkean. 1971n lehenengo kontzertua eskaini zutenetik, Gabriel Aresti poetaren eragin nabarmenez jardun du Oskorrik, bizi zen artean beragaz izan zuten harremanagatik, eta haren letrak sarri kantatu dituztelako. *Harri eta herri* edo *Harrizko herri hau* poemen egilearekin sorturiko hainbat kanta eskainiko dituzte Mallabiko jaietan.

'Harri eta herri' edo 'Harrizko herri hau' poemen egilearekin sorturiko kantak eskainiko ditu Oskorrik

Musika eta literaturzaleentzako bezala, kirol eta herri kirolzaleentzako ere egitarau oparoa prestatu dute. Euskal Herriko nesken gomazko paleta txapelke-

tan ariko dira Itsaso Pradera eta Amaia Araiztegi mallabitarrak ere. Abuztuaren 14an, 21:00etan jokatuko dute txapelketa horren finala. Egun horretan, baita, pilota partiduak izango dira Mallabia I Kirol Etxean: Elezkano eta Larunbe, Rico eta Aretxabalearen kontra ariko dira; eta Bengoetxea eta Beroiz, Olaizola II.a eta Zabalaren kontra.

Andra Mari jaietako Harri-jasotze sariketaren XXIII. edizioa ere jokatuko dute abuztuaren 15ean, 17:30ean, frontoian.



**Hierros**  
**SERVANDO** Hierros

- Metalen eta burdindun metalen berreskuragailua
- Metalen inportazioa eta esportazioa
- Ibilgailuen baja, beraien bizitza erabilgarria bukatzean

**BULEGOA:** Paseo Urkizu, 13 - 14 PK - 20600 Eibar (Gipuzkoa) - Tel.: 943 12 72 19  
**BILTEGIA:** Goltongo Industriegunea, z/g - 48269 Mallabia (Bizkaia) - Tel.: 943 17 47 59 - Fax: 943 17 53 30  
hierros@servandofernandez.com - www.hierros-servando.com

**BETEARTE**

BI-3342 errep., pk. 38 • Areatio Garaia  
48269 Mallabia (Bizkaia)  
Tel.: 943 17 03 07

**LARZEP**  
HYDRAULIC

Avenida Urriaga, 6  
MALLABIA  
Tel.: 943 17 12 00  
Fax: 943 17 41 66  
comercial@larzep.com

**RHEYDE**  
lanabesak s.l.

✓Perfilados ✓Modificación ✓Recuperaciones

P.I. Goltongo, p.3 - 48269 MALLABIA • Apdo. 184 - 48260 ERMUA

**AINHOA SOLOZABAL, ESTIBALIZ KATARAIN eta LOREA ARREGI** | Gazte Alai dantza taldeko kideak

# “Gazte Alain ez dugu beste etenik gura; taldeari eutsi gura diogu”

Jaiei hasiera emango dien txupina Gazte Alai jaurtiko du aurten; Mallabian dantzak hainbat etenealdi izan ditu historian; orain hiru urte berriro berreskuratzen zuten eta gaur egun 50 gaztetxogaz dabilta oraina gozatzeko eta etorkizuneko erreleboa prestatzen



**> JOSEBA DERTEANO**  
**Noiz jakin zenuten jaietako txupina botako zenuela?**  
**Ainhoa Solozabal:** Herriko jaiak antolatzeko udalak erakunde denekin egindako batzar batean esan ziguten, ekain hasieran. Poz itzela hartu genuen. Talde gaztea gara, eta txupina botatzeko aukera izatea sari moduan hartu genuen. Ez dugu erabaki txupina nork botako duen. Dantza taldean lagun asko gaude: zuzendaritzako seiok, begirale taldea, dantzari gaztetxoak... Sasoi

batean, dantza taldean ibilitako dantzariak ere hor daude. Denen ordezkartza bertan izatea gura genuke.  
**Pregoa irakurriko duzue?**  
**A.S.:** Zer edo zer prestatuko dugu. Aukera honen harira, pentsatzen ipini eta konturatu gara aurretik historia luzea duen dantza taldea dela, eta historia hori ez dagoela inon batuta. Izan ere, dantza taldeak lau etapa izan dituela uste dugu: Gerra Zibilaren aurretik sortu zen; ondoren,

frankismo sasoiaren berreskuratzen zuten, eta beste behin trantsizio sasoiaren. Orain hiru urte, gazteak bazeudela eta, berriro ekin genion. Beraz, arlo horretan badago hutsune bat. Ez dugu erabaki zelan, baina historia hori guztia batzea gustatuko litzaiguke.  
**Gaur egun, zenbat dantzari osatzen dute taldea?**  
**A.S.:** Zazpi begiralez eta txistulari batez gainera, 50 dantzari gazte inguruk osatzen dute: 4 eta 14 urte bitartekoak. Neska gehiago

dago, baina mutilak ere badaude. Ez dago nagusirik. Andra Mari jaietan, sasoi bateko dantzari batzuek nesken eta mutilen talde bana sortu eta dantzan egiten dute. Ohitura da. Berez ez daude dantza taldeko dantzarien artean, baina eurentariko asko begiraleak dira.

“

*Udan herriko auzoetako jaietan ibiltzen gara; gaztetxoekin eta gurasoekin jendez betetzen dira”*

**Beraz, gaztetxoek bakarrik osatzen dute dantzarien taldea.**

**Lorea Arregi:** Hasieran sasoi batekoak eta oraingoak, denak batuko lituzkeen taldea osatzea pentsatu genuen. Baina oraingoz badugu nahikoa lan 50 gazte horiekin, eta aurrerago ikusiko dugu.

**A.S.:** Kontuan hartu behar da azken hogeitaz urteetan ez dela dantza talderik egon Mallabian. Ondorioz, Ermuko edo Eibarko taldeetara joan dira hemengo dantzariak. Hutsune handi bat egon da. Orain apurka-apurka umee-

kin hasi gara; pilo bat daude, eta kanpora joan aurretik, herrian aukera eskaintzen diegu. Helburu nagusia talde honi eustea da, ez dadila Gazte Alai dantza taldean beste etenik egon, aurretik egon den moduan. Apurka etorkizunera begirako erreleboak bermatzea nahi dugu.

**Orain hiru urte zelan egin zuten taldea berpizteko urratsa?**

**A.S.:** 1996an desagertu zen taldea, eta ordura arte bertan ibilitako dantzari batzuk mugitzen hasi ginen. Herriko aisialdi eskaintzaren artean gimnasia erritmikoa zegoela ikusi genuen: “Gimnasia erritmikoa bai eta dantza talderik ez?, hori ezin liteke”, pentsatuta hasi ginen. Ermuko Txindurri dantza taldega batu ginen, euren esperientzia baliatzeko.

**Jaietan gazteak egiten dute erakustaldirik?**

**Estibaliz Katarain:** Ez. Abuztuan direnez, ez da erraza taldea batzea. Baina apiriletik abuztura arte auzoko jaietara joaten gara. Lehenengo urtean, auzo bitara joan ginen; hurrengoan hirutara eta iaz denetara. Auzoak eza gutzera emateko modu ona dira. Kanpotik bizitzera etorritakoek, esaterako, ez dituzte auzoak eza gutzen, baina seme-alabekin auzo denak bisitatzen dituzte. Gaztetxoekin eta gurasoekin auzoak jendez betetzen dira.

**ROTEK** rótulos  
 Tel./Faxa  
 943 17 00 36  
 656 78 19 52  
 rotek@telefonica.net

**Ganadu garraioa**  
**Juan Luis Irazola**  
 Tel.: 609 79 45 04  
 943 17 06 51  
 48269 MALLABIA

**Excavaciones BOLIÑA**  
 Mallabia - Bizkaia  
**Mug.: 629 340 410 · Tel.: 943 17 43 11**  
 excavacionesbolina@hotmail.es

**BOSCH Service**  
**URANGA AUTOAK**  
 www.urangaautoak.com

**HELBIDEA** **BOSCH Service**  
 Goitondo industrialdea P-1, behea.  
 MALLABIA (Trabakua-Ermua errep.)  
 (Gasolindegia ondoan eta aurrean gaude)  
 Tel.: 943 17 97 17 / 665 772 272  
 e-mail: urangaautoak@urangaautoak.com

**JUBILATUEN ETXEA**  
 943 17 66 02 · MALLABIA

**Miren Uribelarrea** | Durango, 1992 | Arte Ederretako ikaslea

## “Jendeak ikusitakoari bueltak ematen dizkio emanaldia amaitzen denean”

Eneko Sagardoy aktoreagaz sorturiko ‘BabEZlekua’ performance-a aurkeztuko du Miren Uribelarreak uztailaren 23an, Oñatiko gaztetxean: Arte Ederretako ariketa bezala hasi eta handitzen joan da proiektua



### > ITSASO ESTEBAN

Zein izan da ‘BabEZlekua’ proiektuaren abiapuntua?

Unibertsitaterako nire lan bat izan zen hasiera. Baina urtebetean prozesua luzatzen joan da. Erroka itzela izan da, eta emaitza performance bat izango zela bidean ohartu naiz.

Aurrestreinaldia San Agustinen egin zenuten maiatzean. Zelan joan zen emanaldia?

Unibertsitateko ariketa, gure lanak harago zabaltzea zen. San

“

*Galdera bat da gehien interesatzen zaidana: “nik hauxe sentitu dut, eta zuek?”*

Agustingo emanaldian oso urduri nengoen ni, eta Enekok asko lagundu zidan.

Noiz batu zitzaizun Eneko Sagardoy proiektura?

Urte hasieran. Karrikako lagun gehiago sartzeko asmoa neukan, hasieran, baina azkenean, Eneko eta biok ibili gara. Oso gustura aritu gara.

Bakoitzak zer funtzio daukazu emanaldian?

Oso antzeko funtzioa daukagu:

masa kontsumoaren eraginez barruan pilotzen ditugun gauza askok sortzen dizkiguten obsesioez dihardugu: estresak, kezkek, eta gauza superfizialek gudan duten eraginaz. Ohitu gaituzte beti geratu barik aurrera egiten, eta ez gara zer gertatzen den behatzera gelditu ere egiten.

Gogoeta hori prozesu guztian izan duzu presente?

Haria zein zen banekien, baina nire esperientzia eta emozio propioekin garatu dut: ni neu eta

lana ere aldatu egin dira prozesu luze honetan. Eneko ere identifikatuta sentitu denez, primeran joan da elkarlana.

Zer baliabide darabilzue?

Eskultura bi baliatzen ditugu. Babesleku itxurako eskultura batetik abiatu zen dena. Amaren sabelera bueltatzea adierazten du eskultura horrek. Darabilguzenak esfera formako eskultura bi dira, marroiak, zulodunak.

Eskultura, antzerkia, eta poesia ere baliatzen dituzue.

Bai, izan ere, eskultura lan amaitu bakoia zela sentitzen nuen. Performance-arekin ere berdin gertatzen zait: amaitu barik dagoela sentitzen dut. Bestetik, antzerkiaren influentzia nabarmenak ere baditu. Antzerkiaren antza daukan performance lana da.

Azkenengo emaitza ez dela ulerterraza iradoki duzu.

Bai, ez baita lehenengo kolpean erraz ulertzeko lana: sentsazioak sorrarazten ditu, eta jendeak ikusitakoari bueltak ematen dizkio amaitutakoan. Erantzunik ez, galderak planteatzen ditugu. Galdera bat da gehien interesatzen zaidana: “Nik hauxe sentitu dut, eta zuek?”.

Testuak ere tartekatzen dituzue ikuskizunean.

Antonin Artauden testu bat, Leon Felipearen beste bat, eta nik neuk galdera eta erantzunekin egindako hausnarketa metaforiko bat ere eskaintzen ditugu.



## Loratu, zimeldu, usteldu, sortu...

Gogoeta sakona da *BabEZlekua* lanaren oinarrian dagoena: Uribelarrea sortzailearen berbetan, “gauzak deskubritzen ditugun heinean berriro jaiotzen gara, usteldu, eta gure burua erditzen dugu behin eta berri: beti gaude prozesu batean, aldaketan. Zimeldu, loratu, usteldu eta beste fruitu bat bilakatzen gara”.

Oñatiko gaztetxean, kultur astearen barruan, erakutsiko dute Eneko Sagardoyk eta Miren Uribelarreak gogoeta horrek eta sorkuntza prozesuak eman duten fruitua. Uztailaren 23an izango da, 19:30ean.

Durangoko Karrika antzerki taldean ikasi dute Uribelarrearen berbetan, Sagardoyk eta berak, elkar-

lanean, lantaldean jarduten. Eta oso ondo ulertzen dute elkar: desberdinak direlako elkarren osagarri direla dio Uribelarreak.

Oso eskertuta agertu da bost urtean Durangoko Karrika antzerki taldekoekin ikasitakoaz: *BabEZlekua* lanean ere Karrikako beste lagunen babesa izan dutela azpimarratu du.



### TEATRO DES CLOS

Globe Story  
ANTZERKIA

Uztailak 20 • 22:00  
Andra Mariko elizpea

### NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA

Ant. / Org.: Kriskitin  
Dantza Taldea

DANTZA  
Uztailak 24 • 22:00  
Andra Mariko elizpea

### BANDA BEAT 'N BLOW

MUSIKA

Uztailak 28 • 20:00  
Andra Mariko elizpea

San Agustin  
KULTUR  
GUNEAK  
DURANGOKO LEIALA

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 94 620 18 93  
Faxa: 94 681 64 03



# JATETXE GIDA



ÑAM!



## HURI BARRENA

Huribarrena, 8 OTXANDIO  
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak. Eguneko menua.  
Asteburuetan menu berezia.



ÑAM!



## NERE JATETXEA

San Agustinalde, 4 DURANGO  
Tel.: 94 620 39 10

Eguneko menua. Eguerdietan: entsaladak,  
errazioak eta plater konbinatuak.  
Ostegunetik igandera karta berezia gauero.



ÑAM!



## PLATERUENA kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a  
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.  
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.



ÑAM!



## PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ  
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua. Karta. Domeka,  
astelehen eta martitzen gauetan itxita.



**Profesional onenak  
zure zerbitzura!**

ÑAM!

## MENU BEREZIA

Sarrerakoak (2 aukeran)  
Entsalada  
Patata frijituak  
Zatitutako txuleta errea  
Postrea  
Ogia eta edaria

**60€**  
bikoteko  
(BEZ barne)



## JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ  
Tel.: 94 682 40 77

# **Kirola**

**SILVIA TRIGUEROS** | 37 urte, Barakaldo, Abadiñon bizi da |

## *“Mendi lasterketetan giro sanoa aurkitu dut; engantxatu egiten du”*

Goierriko Bi Handiak mendi lasterketa irabazi du 88 kilometro gorabeheratsuak 13.15.40an osatuta



Silvia Trigueros barakaldarra den arren, Abadiñon bizi da 2004az geroztik.

### > **JOSEBA DERTEANO**

**Betidanik izan da mendizalea, baina mendi lasterketetan orain urte bi murgildu zen, 35 urte zituela. Aurten Apuko Igoera (Enkarterrietan), Eskoriatzako Gabez Takarran eta Goierriko Bi Handiak irabazi ditu; azkena, joan zen asteburuan.**

### **Zelan joan zen lasterketa?**

Bero itzela egin zuen. Normalean, gaueko 23:00etan hasten da, baina Txindoki inguruan ekaitz arriskua zegoenez, ordubete inguru atzeratu zuten hasiera. Niri gauez aritzea gustatzen zait, eta egiten zuen beroarekin are gehiago. Lasterketa arina izan zen; ni ez nintzen konturatu amaitu eta denborak ikusi arte, baina azkarra izan zen. Gustura aritu nintzen. Hasieratik lehe-

nengo joan nintzen, eta ez nekien ondo aurkariak non zetozen. Etxegaraten, bigarrenarekiko ordu erdiko alde neramala esan zidan senarrak. Handik aurrera, indarrak apur bat dosifikatzen joan nintzen, baina ez dago erabat erlaxatzerik, sekula ez baita jakiten indarrek noiz huts egin dezaketen.

### **Aurten iaz baino ordu erdi gutxiago behar izan duzu. Espero zenuen?**

Iazko denbora hobetzea espero nuen, eta alde horretatik pozik nago. Hamahiru ordutik jaitsi ez izanaren zera hori geratu zait, baina tira. Une batez erritmoa jaitsi nuen, eta eutsi izan banio, beharbada lortuko nuen.

### **Datorren urterako baduzu beste erronka bat.**

Datorren urtean beharbada Ehun Milak lasterketarako salto egingo dut; taldeka parte hartzeko modua badut behintzat. Aurten Ehun Milak taldeka lehiazeko asmoa nuen, baina nire lagunek beste konpromiso batzuk zituzten, eta ezin izan dugu.

### **Goierriko Bi Handiak bigarren urtez jarraian irabazi duzu.**

Nire lehenengo garaipena bertan lortu nuen iaz. Ez nuen espero, eta gomuta onak ditut. Aurten banekien aukerak nituela, baina faboritoen artean egoteak ez du ezertarako balio; gero erakutsi egin behar da.

### **Zein izango da zure hurrengo hitzordua?**

Abuztuaren 30ean Mont Blanceko Ultratraila egingo dut. Gogo handiagaz nago. Denboraldiko

nire helburu nagusia lasterketa horixe da.

### **Zelan daroazu prestaketa?**

Oraintxe bertan jaso dut hilerako entrenamendu saioen eskema. Prestatzaile bat dut, Kepa Larrea. Kasualitatez hasi nintzen beragaz, bigarren urtea dut aurten, eta oso ondo konpontzen gara. Arrakastaren sekretu nagusia konstantzia da; entrenatzea eta entrenatzea.

“

*Arrakastaren sekretua konstantzia da; entrenatzea eta entrenatzea”*

**Mendia beti gustatu zaizu, baina zelan hasi zinen mendi lasterketetan?**

Sasoian mantentzeko entrenatzen nintzen. Behin, Jabi Cabrera koinatuak Aiako Harrietan egiten zuten lasterketa berri batera zihoala esan eta beragaz joan nintzen. Zenbat sufritu nuen! Baina oso ondo pasatu nuen. Ordutik aurrera, fundamentu gehiagogaz entrenatzen hasi nintzen.

### **35 urte zenituen. Zer bilatu eta aurkitu zenuen mundu berri horretan?**

Engantxatu egiten du, eta giro sanoa aurkitu dut. 2011. urte amaieran emaitzei dagokionez asko hobetu nuen. Hasieran, onenek denbora handia ateratzen zidaten, baina apurka alde horiek jaisten joan nintzen. Horrek gehiagora joateko motibatzen ninduen. Ondoren, distantzia luzeekin hasi nintzen, eta egia esan, laburretan baino erosoago sentitzen naiz.

### **Orain 37 urte dituzu, eta lasterketak irabazten zabilta.**

Egia da aurten emaitza onak izaten ari naizela. Helburuak markatu eta betetzen saiatzea gustatzen zait. Nire kasuan, horrela funtzionatu behar dut, osterantzean erlaxatzeko joera izaten dut. Dena dela, ez obsesionatzen saiatzen naiz; ez naiz derrigor irabaztera irteten, lasterketa amaitzera eta helburuak betetzera baizik.

### **Inoiz pentsatu duzu 20 urte gaz hasi bazina noraino heldu zintezkeen?**

Mundu guztiak gauza berdina esaten dit! (barreak). Nik ere pentsatu izan dut, baina horrela etorri da eta... Dena dela, distantzia luzean, goian dabilzanetatik asko beteranoak dira.

### **Abadiñon ez zaizu mendirik falta.**

Ez naiz den-denetara igo, baina asko ibili naiz. Anbora zenbat bider igoko ote nintzen! Aurten, denboraldi batzuetan, astean behin bai.

**ILARGI ARGIGINTZA**

**MERKEALDIA**

%70 %60 %50 %40 %30 %20 %15

Askatasun Etorbidea, 20 • 48200 Durango • Tel-Fax: 94 681 24 92

**ATXARTE**  
MENDIKO GENDA

ESKALADA • BOULDER • MENDIA • TRAIL RUNNING

Lafuma • charke • PETZL

T. 946 550 455  
Santa Ana plaza  
DURANGO  
Atxartemendikodenda@gmail.com

> **FUTBOLA**

# Berriz futbol klubaren etorkizuna kolokan dago errelebo faltagatik

Aurreko zuzendaritzak dimititu ondoren, berri bat osatu guran dabil udala

> **JOSEBA DERTEANO**

Berriz futbol taldearen etorkizuna kolokan dago. 1973an sortu zen kluba zuzendaritza ofizial barik dago une honetan, eta udala zuzendaritza berri bat osatzeko ahaleginetan dabil. Azken eguen bietan deitutako batzar irekietan zuzendaritzako kide izateko prest dauden sei lagun agertu dira, baina ez dute goi kargurik gura: "Esperantza badugu, baina ez da erraza", azaldu du Orland Isoird alkateak: "Zuzendaritzan egoteko lagun batzuk agertu direla ikusita, goi karguak onartzeko prest dagoen jendea agertzea itxaroten dugu". Halakorik agertuko ez balitz, udalbatzarra deitu eta ahaleginetan jarraitu ala ez eztabaidatuko lukete. Asko jota, datozen aste bietan argituko da Berriz futbol klubaren etorkizuna.

Javi Perez presidente ohiak eta bere zuzendaritzak sei urtez gidatu zuen taldea. Lehenengo legegintzaldia amaitu ondoren, gurago zuen erreleboa eman, baina ez zen inor aurkeztu. Horregatik, berriro bere burua presidentegai aurkeztea erabaki

zuen, baina erreleboa aurkitu arte bakarrik. Bazkideekin zein klubeko futbol talde denetako gurasoekin batzartu den arren, "ondotik eta puntualki laguntzeko prest bai, baina inork ez du kargurik hartu nahi" Perezen berbetan. "Inplikazio falta ikusi dugu. Kargu batzuk hartu eta guri lan apur bat kentzeko jendea agertu izan balitz, jarraipena emango genion, baina ez da halakorik gertatu". Ekainean, legegintzaldi erdian, lan guztiak bost

Aurreko zuzendaritzak ekainean dimititu zuen: "Inplikazio falta ikusi dugu", dio Perez presidente ohiak

Deitutako batzarretan, sei lagun zuzendaritzako kide izateko prest daude, baina ez goi karguetan

lagunen artean egin beharrazag nekatuta, zuzendaritzak dimititu egin zuen. Hala ere, klubaren kudeaketa errotan jarraitzen dute, Berrizen etorkizuna argitu bitartean. Zuzendaritza berriari ahal dutenean laguntzeko presutasuna ere erakutsi dute.

Horretara, zuzendaritza berria osatzeko prozesua bideratzea erabaki zuen udalak: "Alde batetik, historia luzea du klubak. Bestetik, kontuan hartu behar da eskola kirolean dabilzanen urrats naturala dela Berriz futbol klubera. Horregatik, prozesua bideratzeko lana hartzea erabaki genuen", dio Orland Isoird alkateak.

Azken eguen bietan batzar ireki bi deitu dituzte. Bigarrenean galdera zuzena egin zieten batutakoek: nor dago zuzendaritzako kide izateko prest? Sei lagun agertu ziren prest (eta beste hainbat horiei laguntzeko). Baina zuzendaritzako goi kargurik -presidente, diruzain edo idazkari- ez du inork gura. Federazioak kargudun horiek izatera behar izaten ditu klubak eta gaur gaurkoz Berriz ez ditu.

> **IGERIKETA**

# Olaia Zubero Espainiako Txapelketan lehiatuko da

Pontevedran crawl estiloko 50 eta 100 metroetan ariko da 14 urteko abadiñarra datorren astean

> **J.D.**

Olaia Zubero 14 urteko abadiñarra (Abadiño Igeriketa Taldea) lehenengoz sailkatu da Espainiako Txapelketa baterako. Gainera, distantzia bitan lortu du gutxieneko marka: crawl estiloko 50 eta 100 metroetan.

Datorren astean Pontevedran jokatu da txapelketa. 50 metroetako saioan datorren eguaztenean lehiatuko da Zubero, eta 100 metroetakoan barikuan. Helburu zehatz barik

doa; lan txukuna egitea eta bere mailan aritzea gura du.

50 metroetako gutxiengo marka Getxon lortu zuen urtarrian. Baina distantzia horretako sailkapenagaz bakarrik ezin daiteke joan Espainiako txapelketara. Beharrezkoa da gutxienez beste bat. Horregatik 100 metroetako lortu guran ibili da hil askoan, eta Santurtziko Bizkaiko Txapelketan lortu zuen berau, ekainean. Zilarrezko domina irabazi zuen.



14 urtegaz, lehenengo bider sailkatu da Espainiako Txapelketa lehiatzeko.

> **ATLETISMOA**

# Durango Uria criteriuma bihar, goi mailako atletekin

Dolores Vives eta David Fernandez etorriko dira Durangora, biak izen handiko atletak beteranoetan

Durango Kirol Klubak antolatuta, aurten 7. aldia egingo du Durango Uria atletismo criteriuma zapatuan, atletismo pistan. Beteranoek bideratutako lehiaketak jauzi, jaurtiketa eta lasterketako ia modalitate denak aurreikusten ditu.

Lehenengo probak 17:00etan hasiko dira, eta sari banaketa 20:00etan egingo dute. Etorriko diren atletetatik bi izen nabarmendu daitezke: Dolores Vives eta Daniel Fernandez.

Vives emakumeen 100 metroetan 12 segundotik jaiste lortu zuen lehenengo espainiarra izan zen. Orduan 22 urte zituen. Gaur, 50 urtetik gora dituen arren, maila handian jarraitzen du Gasteizko beteranoen txapelketan erakutsi zuen moduan. Daniel Fernandezek Espainiako errekorrak ditu altuera jauzian 60 urtetik gorako hainbat adin tartetan. Orain gutxi Frantziaren 1.40 metroko marka lortu du bere kategorian. Durangoko lehiaketan urtero parte hartzen du 74 urteko atletak. Berezitasun moduan aipatu, federazioak ha-

la eskatuta, Mohammed Dif atleta gutxiak ere parte hartuko duela luzera jauzian. Nazioarteko mitinetan parte hartzeko marka baten bila etorriko da Durangoko criteriumera.



Dolores Vives atleta.

> **ATLETISMOA**

# Romero abiaduran eta Garcia oztopo probetan pareko barik aritu dira

Jose Luis Romero 100, 200 eta 400 metroetan nagusitu da Espainiako Txapelketan; Iraia Garcia urrezko domina bi irabazi ditu Euskadikoan

> **J.D.**

Beteranoen Espainiako Atletismo Txapelketa eta Euskadiko Txapelketa oso emankorrak izan dira Bidezabal eta Durango Kirol Klubarentzat. Bien artean 18 domina irabazi dituzte Espainiakoan, eta 7 Euskadikoan.

Jose Luis Romerok (Durango Kirol Kluba) 100, 200 eta 400 metroetan urrea jantzi zuen (M-65 kategorian) Gasteizko Mendizorrotzan jokatu betako beteranoen txapelketan. Gainera, 400 eta 200 metroetan txapelketako errekor berria ezarri zuen: 1.00.73 (400 metroetan) eta 26,93 (200ean).

Gasteizko hitzordura bueltatuz, Romeroren taldekide Floren Martin ere maila itzelean aritu zen 80 urtetik gorako kategorian. Kolkoka lau urregaz bete zuen 200, 400, 800 eta 1.500 metroetan gailenduta. Azken distantzia horretan aurreko marka ontzea lortu zuen: 7.03.93. Ana Maria Saizek (W-45) salto hirukoitz irabazi zuen eta Begoña Martinez durangarrak (W-35) zilarrezko domina bana irabazi zuen 100 metro oztopoetan eta

altuera jauzian. Emaizta azpimarragarria da, kontuan hartuta 20 urtez atletismoa utzita izan duela. Rosa Loitik ez zuen dominarik lortu baina bere marka pertsonal denak hobetu zituen.

Bidezabali dagokionez, Salvador Casal (M-70) 800 eta 1.500 metroetan gailendu zen. Juan Jose Mendizabalek (M-70) urrezko, zilarrezko eta brontzezko domina bana irabazi zituen xabalinan, pisu jaurtiketan eta mailu jaurtiketan, hurrenez hurren. Azkenik, Kontxi Tajés

(W-60) hirugarren geratu zen 1.500 metroetan.

Euskadiko Txapelketa absolutua Durangon jokatu zen. Iraia Garcia (Bidezabal) 1.500 eta 3.000 eta oztopoetan nagusitu zen. Bere taldekide Andrea Delatorrek 800 metroetako proba irabazi zuen eta Leire Gorritxategi bigarren sailkatu zen xabalinan. Gizonetan, Asier Eizagirrek (pisu jaurtiketan) eta David Fuentesek (mailuan) irabazi zituzten urreak. Jon Unzuetak brontzea lortu zuen 400 metro hesietan.





## &gt; TXIRRINDULARITZA

# Bizikletak kultura eta nazio bi lotuko ditu udan

Durangoko Txirrindulari Elkarateak sustatuta, hiru txirrindulari eskoziar Durangon dira; esperientzia eta kultur elkartrukea sustatu gura dute



Hiru eskoziarrak erdian jarrita, eta Beste Alde Orue Eskolako txirrindulariak atzo, Durangon.

## &gt; JOSEBA DERTEANO

Durangoko Txirrindulari Elkarateak 'Errubera gaineko elkartrukea' ekimena abiatu du aurten bosgarren bider. Nazioarteko txirrindulari gazteak Durangora ekarri eta, ondoren, alderantziz, bertakoak etorri diren horien herrialdeetara joanez, gazteen ezagutza orokorra handitzea (kultura, hizkuntza...), eta esperientzia berriak bizitzeko aukera eskaintzea da helburua. Aurten, hemengoek ezingo dute kanpora joan, baina dagoeneko hiru txirrindulari eskoziar gazte Durangon daude.

Honako hauek dira Eskoziatik etorri diren hiru txirrindulariak: Joe Nally (14 urte), Rory Mellis (16 urte), eta Kyle Petrie (17 urte). Lehenengo biak hiru asterako etorri dira, eta Petriek, guztira, hiru hilabete emango ditu Euskal Herrian. Hartara, bertakoek ingelesa praktikatu ahal izango dute, eta eurek euskara zein gaztelania. Kultur elkartrukea zein beste txirrindularitza mota batzuk ezagutzeko ere oso esperientzia aproposa da.

Hemen dauden artean, Beste Alde Orue Eskolako txirrindularien etxeetan biziko dira hiru-

rak. Gainera, lasterketa ofizialan ere parte hartzen dabilta. Esaterako, Nallyk Barakaldoko lasterketa irabazi zuen joan zen domekan, eta Mellis bigarren sailkatu zen pasa den zapatuan Larrabasterran. Maila ona dutela azaldu du Josu Atxotegi Beste Alde Orue Eskola taldeko zuzendariak.

Durangoko taldeak Eskoziako selekzioagaz dituen akordio bidez etorri ahal izan dira gazteak. Aurrekoetan, Frantziako txirrindulariak ere etorri dira Lyongo Lyon Sprint Evolution taldearen bidez.

(Austria) eta Monako banatzen dituen 1.031 kilometroak amaitzea: Mauer suitzarra izan da irabazlea eta bere atzetik, Latour eta Girard frantziarrak, Chambers erresuma batuarrak eta Gebhard italiarra helmugaratu dira. Atzo 600 kilometro falta zitzaizkion Gabiriari eta azken zegoen. Bere aurretik Carter sudafrikarra zuen 43 kilometro aurretik. Gainerako arerioak gutxienez 150 kilometro aurretik ditu.

## &gt; AUTOKROSA

## Espainiako Txapelketa ondo bideratuta du Urangak

Asteburuan Coruñan izandako lasterketa irabazi (II. Mailan) eta lidertza sendotu du Arkaitz Urangak (Markinarra da eta Mallabian lan egiten du). Lasterketa bi falta dira Espainiako Autokros Txapelketa amaitzeko. Abuztuko azken aurrekoan, berriro Galizian, bere mailako (II. Maila) irabazle geratu daiteke.

Joandako asteburuan Galiziako Carballo herriko zirkuituan lehiatu zen. Aurretik autoari abiadura-aldagailu berria ipini behar izan ziotenez, zer errendimendu eskainiko zuen dukekin hasi zituzten entrenamendu saioak. Dudok berehala desegin ziren. Entrenamenduetan segundo bat inguruko aldea atera zien aurkari. Final laurdenak, finalerdia eta finala irabazi eta asteburu borobila osatu zuen.

## &gt; AUTOMOBILISMOA

## Iban Tarsicio eta Iñigo Peña podiumera igo ziren Zornotzan

Joan zen asteburuan Amorebieta-Etxanoko lehenengo ralliesprinta izan zen, eta Durangalde Racing Elkarateko Iban Tarsiciok eta Iñigo Peñak podiumera igotzea lortu zuten hirugarren tokian sailkatuta. Iker Gayoso-Diego Fernandez eta Gorka Antxustegi-Xabat Urresti bikoteak geratu ziren aurreneko bi tokietan.

Zornotzako puntuekin, Rallysprinten Euskal Txapelketako lider jarraitzen dute Tarsiciok eta Peñak, 175,75 puntuekin. Joxe Labaka bigarrenari bost puntuko aldea ateratzen diote; Iker Gayoso hirugarrenari, berriz, 26 puntuko. Hiru ralliesprint falta dira txapelketa amaitzeko: Eibarren, Fiteron eta Aramaion.

## ADITUAREN TXOKOA

**Oihana Azkorbebeitia**

EHko mendi lasterketen taldeko hautatzailea

**Hotza edo beroa**

Heldu da uztaila eta berarekin batera aspaldian espero genituen beroa eta eguraldi ona. Harrigarria bada ere, denboraldi honetako mendiko lasterketak hasi zirenetik, sei bat hilabete igaro dira dagoeneko. Negu-neguan hasi ziren lehen lasterketak, eta orduan, lasterkariak hotza izan zuten bidelagun, eta elurra ere bai hainbat kasutan. Orain, ostera, bero itogarriarekin egin behar aurre kilometroei. Aldea dago, bai, eguneroko entrenamendua bost edo sei graduoko tenperaturekin egin, edo hogeita hamarrekin. Emaitzak ere hotz-beroaren arabera izaten dira sarri askotan. Batzuek hotz-giroa dute nahiago, eta ezin hobeto moldatzen dira tenperatura baxuekin. Tenperaturaren gorakadarekin, ostera, euren gainbehera dator, emaitzei dagokienez, behintzat. Beste batzuei, aldiz, kontrakoa gertatzen zaie. Denboraldi hasieran, hotzak gogortuta edo, nekeza egiten zaie erritmoa hartzea. Beroaren zain egoten dira, narrastiak bezala, eguzkiaren beroak susperraldia dakarkielako.

Hortxe dago korrikalari ona izateko gakoa. Negu zein uda, hotz zein bero, ezinbestekoa da erregularra izatea denboraldi osoan. Baina hori ez dago edozeinen esku. Gorpuzaren mugak onartu behar ditugu. Goi-mailako kirolari gutxi batzuek, ostera, badute gaitasuna denboraldi osoan punta-puntan egoteko. Mendi lasterketetan, behintzat, badago bat aparteko dohainak dituen: Kilian Jornet. Eta bejondeiola!

## &gt; PARAPENTEA

## Bizirauteko gaitasun handia erakusten ari da Gabiria

Red Bull X-Alps lasterketan 14. eguna du

## &gt; J.D.

Iñigo Gabiriak aurrera jarraitzen du Red Bull X-Alps lasterketan. Orain 14 egun lasterketa hasi zutenetik azken tokietan eta kanpoan ez geratzeko borrokan dabil elo-

rriarra. Orain arte, kanporaketa egunak gutxienez azken aurreko tokian amaitzea lortu du, eta ondorioz, lasterketan jarraitzen du. Jada zortzi lagunek lortu dute Salzburgo

**Hurrengo eraikuntza**

**DURANGO**

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK  
Bixente Kapanaga 19, behea - 94 681 66 73 - Iurreta  
www.zarateylexpe.com

**Elorrion ere aukera onak**

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO  
Tel.: 94 681 44 74  
Faxa: 94 621 53 74  
urtiaga.sl@terra.es

**urtiaga**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK  
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

**Hemen agertu gura badozu deitu!**

**94 621 79 02**

# ➤ Aisialdia

➤ GAZTE GARA GAZTE!

## Kurutziaga ikastolako gaztetxoek ingelesa modu ludikoan praktikatu dute uztailean



'Enjoy English' programan aurten parte hartu duten gaztetxoetako batzuk, begiraleekin.

### ➤ JOSEBA DERTEANO

Jolastuz ikasi daiteke, eta ikastea jolasteko modu bat ere izan daiteke. Kurutziaga ikastolako 70 bat gaztetxok (5 eta 12 urte bitartekoak) *Enjoy English* ekimenean parte hartu dute uztailean. Udako sasoiari ingelesa hobetzeko edo, gutxienez, buruan eta ahoan erabiltzeko aukera izan dute, Erresuma Batukoak diren bost begirale gaz. Izan ere, sarritan, liburu baten aurrean behartuta baino errazago ikasten da ikasgai bat jolas baten inguruan, alderdi ludikoa eta ikasgaia batera eta eskutik helduta doazenean.

Begiraleak ingelesak, irlandarrak edo eskoziarrak dira, eta umeei esperientzia duten unibertsitateko ikasleak dira. Euskal Herrira etortzeko duten arrazoia programa bera da. Hain zuzen, begirale bat iaz ere etorri zen, eta esperientzia gustatuta, aurten errepika-

tzea erabaki du. Programaren beste berezitasun bat honako hau da: atzeritik datozen begiraleak *Enjoy English* programan parte hartzen duten gaztetxoen etxeetan bizi dira hilabete osoan.

Gaztetxoak taldeetan banatu dituzte adinaren arabera: "Askotariko ekintzak egin dituzte, eta begiraleek ingelesez egiten dutenez, gaztetxoek etengabe darabilte hizkuntza hori ahoan", adierazi du Laiane Zabala ekimeneko koordinatzaileak. Hil honetan askotariko ekintzak egin dituzte; esaterako, gazteenek ipuin bat oinarri hartu eta horren gaineko marrazkiak edo eskulanak egin dituzte, beti ere, ahal den guztietan begiraleekin ideiak partekatuzko hizkuntza ingelesa izanda. Horrez gainera, gaztetxo denek egunpasetan ere parte hartu dute, aisialdirako eskaintza ikastolatik kanpo-

ra ere zabaldua. Ekimeneko argazkiak webgunean ipini dituzte ikusgai: [www.kurutziagaikastola.net](http://www.kurutziagaikastola.net).

*Enjoy English* programa gaur bertan amaitu dute, eta hil honetako esperientzia borobiltzeko, ekitaldi berezi bat prestatzen ibili dira burubelarri.

Hain zuzen, gaur goizean Kurutziaga ikastolan bertan jaialdia egin dute, eta gurasoak eurak izan dira ikusle. Talde bakoitzak erakustaldi bat prestatu du, eta denek elkarrekin, *good bye* esan diote *Enjoy English* programari, datorren urtera arte.



Begiraleak ingelesak, irlandarrak eta eskoziarrak izan dira eta esperientzia dute umeei

Begiraleak programan parte hartu duten gaztetxoen etxeetan bizi izan dira

'Enjoy English' programa gaur amaitu dute jaialdi batez, gurasoak ikusle zirela

laguntzaileak





Ondorengo galderaren erantzuna badakizu...

*Hemen, Kafeari Baqué esaten diogu*

## Cafés Baqué produktuen otzara... zuretzat!



**Galdera: Nork irabazi du Goierriko  
Bi Handiak lasterketa  
emakumeetan?**

Zure datuak eta erantzuna  
helbide honetara bidali



zozketa@anboto.org edo  
Bixente Kapanaga 9-lurreta

**Ekaineko irabazlea: Itziar Belaustegi**

# Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
San Agustinalde, 4 - 1 ezka • 48200 DURANGO

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea 15, beheka • 94 681 64 23  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 94 681 66 66  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 94 681 40 49 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

## ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

### DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarrekoko etxebizitzak alokairuan

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- ARTEKALEA: 8 etxebizitzaren eraikuntza hastera goaz. 2 logela eta logela bakarrekoko. Trastelekuarekin. 140.000€-tik aurrera.
- SAN IGNAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekuak. Igerilekuarekin.
- DURANGO: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berriztatuko. 114.000€
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekuak.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Trastelekuak eta garajea.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALEA: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekuak eta frontoia.

### ABADIÑO

- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekuak eta ganbara. Ikusgarria.

### ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekuak.

## LURSAILAK SALGAI

### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

### OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

### EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lur zati, bakoitzean familia biko etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

### ABADIÑO

- Familia biko etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

### DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

## BASERRIAK SALGAI

### IZURTZA

- Baserrria salgai lorategi itxiarekin. Ortu eta lursailarekin. Durangotik 5 minutura.

## TXALETAK

- DURANGO-ERRENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekoko eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ALLUITZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3/5 logela, 2 komun eta egongelatxoa.
- ANTISO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ARKOTZA: Halla, sukaldea, egongela, 4 logela, komuna eta bainugela. Ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta 2 komun.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, komuna eta 2/3 logela. Ganbara.
- ERROTARITXUENA: Estreinatze. Halla. Sukalde jantzia, logela 1 edo 2, egongela eta 2 komun. Eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- JUAN ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- MONTEVIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- ONITURRI: Halla, sukaldea, eskegitokia, sukaldea, 3 logela, egongela-jangela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekuak.
- SAN AGUSTIN: Halla, sukaldea, 5 logela, egongela eta 3 komun.
- SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- TXATXIENA: Halla, sukaldea, despentsa, egongela-jangela eta 3 logela. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- UNDATORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.
- ABADIÑO-ARLOZABAL: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta 2 komun. Terraza handia.
- ABADIÑO-FERIALEKUA: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoi handia. Ganbara eta garajea.
- ABADIÑO-MATIENA: Halla, sukaldea, egongela 2/3 logela eta komuna. Ganbara.
- ABADIÑO-MUNTSARATZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Egoera onean. Ilogailua.
- BERRIZ: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekuak.
- BERRIZ: Duplexa. Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Erdi jantzia. Garaje itxia eta trastelekuak.
- BERRIZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.
- ELORRIO: Halla, sukaldea, 2/3 logela, egongela eta komuna. Balkoia. Trastelekuak eta garajea.
- ELORRIO: Berrito eraikitze. Etxe lursailarekin.
- IURRETA: Halla, egongela-jangela, sukaldea office-arekin, despentsa, 3 logela eta komuna. Terraza itxia eta trastelekuak. Berriztatua.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### ASKATASUN ETORBIDEA



- Eraikitzen ari diren pisuak: 1, 2 eta 3 logela. Garajea eta trastelekuak. Hainbat azalera eta orientazio. ERDU eta ERAKUTSIKO DIZKIZUGU!

### PLATERUENA PLAZA



- Pisu erdi berria: 3 logela, egongela, sukalde hornitua, 2 komun, garajea eta trastelekuak. Bizitzaren sartzeko moduan. Herri erdi-erdian. 290.000 €

### ASKATASUN ETORBIDEA



- Kanpora ematen du. Eguzkitsua. 3 logela, egongela, sukalde hornitua, despentsa, 2 komun. Garajea eta trastelekuak. 265.000 €

### MARTXOAREN 8ko KALEA



- Erdi berria. 2 logela, egongela, sukalde hornitua, 2 komun, 2 balkoi. Garajea eta trastelekuak. Kanpora ematen du. Eguzkitsua. 235.000 €

### ABADIÑO, ERDIGUNEA



- Oso-osorik berriztatze. Etxe salgai. Beherego solairua, lehenengo solairua eta estalkipea. 139.000 €

Aipatutako etxebizitzetaz gain, Durangalde osoan etxebizitzetaz aukera zabala dugu, 50.000euro-tik aurrera.  
www.inmoduranguesado.com

## ETXEBIZITZA BERRIAK ESTREINATZEKO

- ZALDIBAR: Kurutzezar plaza/Solonagusia. Garaje eta trastelekuarekin. Prezio bereziak.
- IURRETA: estreinatze. 1, 2 eta 4 logela. 2 komun. Ganbara. Trastelekuak. Garajea aukeran. 160.000 €.
- ATIKOA: berria. Estreinatze. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Trastelekuak eta garajea aukeran. 212.000 €. BEZ barne.

## AUKERA

- SAN ROKE: 90 m2, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ilogailua. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. 206.000 €.
- MURUETATORRE: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. 180.000 €.
- ZALDIBAR: 3 logela. Eguzkitsua. Trastelekuak. 84.000 €.
- DURANGO: 2 logela, egongela eta komuna. Ilogailua. Bizitzaren sartzeko moduan. 116.000 €.
- BERRIZ: Iturritza. 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Despentsa. Berogailua eta igogailua. Ganbara eta garajea. 211.200 €.
- MATIENA: 3 logela eta egongela. Ganbara. Altuera ona. 126.000 €.
- IURRETA: 70 m2. 3 logela eta egongela. Ilogailua. Garajea aukeran. 186.000 €.
- DURANGO: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekuak. Bizitzaren sartzeko moduan.
- IURRETA: 3 logela. Eguzkitsua. 50.000 €.
- OIZ: 3 logela, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Ilogailua. 150.000 €.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO: 2 logela, egongela eta sukalde-jangela. Kanpora ematen du. Eguzkitsua. 149.652 €.
- MONTEVIDEO: 3 logela eta egongela. Ilogailua.
- FRAI JUAN ZUMARRAGA: Atikoa. 2 logela eta 2 komun. Terraza eta ikuspegi ederra. 186.000 €.
- BERRIZ: Txaleta. 365 m2. Estreinatze. 1270 m2-ko lursaila.
- ATXONDO: 90 m2. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta despentsa. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. 186.000 €.
- FRANTZISKO IBARRA: 2 logela, komuna eta egongela. Eskegitokia. Ganbara eta garajea. 235.000 €.
- SAN IGNAZIO: 105 m2. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 260.000 €.
- TABIRA: Erdi berria. 2 logela eta 2 komun. Trastelekuak eta ganbara. 252.400 €.
- GALLANDA: apartamentua. Trastelekuak eta garajea. 166.000 €.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. Igerilekuak. Eguzkitsua. 240.000 €.
- KOMENTUKALEA: 4 logela eta egongela. Terraza. Berriztatua. 211.000 €.
- TXIBITENA: 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. Sukalde eskegitokiarekin. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra. 278.000 €.
- ASKATASUN ETORBIDEA: erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. 276.000 €.
- DURANGO: Duplexa. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- SAN IGNAZIO: garaje itxia. 21.000 €.
- IURRETA: Garaje itxia.

## LOKALAK

- IBAIZABAL: 40-100 m2. 400 €.
- ASKATASUN ETORB.: 40 m2. Egokitua. 450 €.
- SASIKOA: 60 m2. Egokitua. 600 €.
- ARTEKALEA: Alokairuan. 180 €.



# AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Uztailaren 20an, 22:30ean, Elorriko Tola jauregian

## Bentley

Folk doinuak jorratzen ditu Madriren bizi den baina jatorri murtziar eta britainiarrek dituen Alondra Bentleyk. Bere ahots berezia, gitarra eta hainbat tresna exotiko dira bere kanten oinarriak. Iaz kaleratu zuen 'The Garden Room' diskoa aurkeztuko du.

## Antzerkia

### :: DURANGO

Uztailaren 20an, 22:00etan, **Globe story**, Andra Mariko elizpean.

## Musika

### :: ELORRIO

Uztailaren 20an, 22:30ean, **Alondra Bentley**, Tola jauregian.

Uztailaren 26an, 22:30ean, **Diouke**, plazan.

## Erakusketa

### :: GARAI

Abuztuaren 31ra arte, **'Zubiaurretarren begietatik'**, Valentin eta Ramon Zubiaurre margolarien argazki erraldioak, herrian zehar.

### :: ELORRIO

Uztailaren 28ra arte, **Txelu Angoitia, Segun Lazkano eta Jesus Mari Arruabarrenaren 'Noctis Labyrinthus'**, Casajara jauregian. Barikuetan, 19:00-21:00; zapatuetan, 19:00-22:30, eta domeketan, 13:00-14:30 eta 19:00-21:00.

## Dantza

### :: DURANGO

Uztailaren 24an, 22:00etan, **Nazioarteko Folklore Jaialdia**, Andra Mariko elizpean.

## Jaiak

### :: OTXANDIO

Uztailaren 19an, 18:00etan, **Zirika Zirkus**. 19:00etan, buruhandi eta erraldioen kalejira. 19:30ean, **Otxandio Oihandi abesbatzaren, Zaldibarko koral elkartearen eta Aiarako abesbatzaren emanaldia**, elizan. 22:00etan, **Seigarren**

mailako ikasleek txupina botako dute. 20:05ean, **pilota txapelketaren finala**, plazan.

Uztailaren 20an, 09:00etan **Arrantza txapelketa**, Mataderoan. 12:00etan, **Otxandio Bandaren kalejira**. 12:30ean, **meza**, San Martinen. 14:00etan, **Paella eta bolo txapelketak eta fanfarrea**. 19:30ean, **umeentzako herri kirolak**, Andikonan, eta **Ben-tazaharreko mutiko alaiak**, herrian zehar. 23:30ean, **Riot Propaganda**. Ondoren, **Izargi taldearen berbena**.

Uztailaren 21ean, 07:30ean, **Diana eta kalejira**. 08:00etan, **sokamuturra**. 12:00etan, **meza nagusia**. 13:00etan, **omenaldia 1936ko bonbardaketan hildakoei**, Andikona plazan. 13:45ean, **limonada**, plazan. 14:00etan, **Otxandio eta Araiaiko banden kalejira**. 19:00etan, **Urduri eta Kriskifin dantza taldeen emanaldia**, plazan. 20:00etan eta 22:30etan, **Drindots**, plazan. 00:30etan, **Agur Santa Marina abestuz jaien amaiera**, plazan.

### :: ZORNOTZA

Uztailaren 19an, 19:00etan, **umeen danborrada**. 21:00etan, **txistularien kontzertua**, Zelaieta parkean. 22:30ean, **Hesian + EH Sukarra**, txosnetan.

Uztailaren 20an, goizean, **marmitako lehiaketa**, Zubiondo parkean. 09:00etan, **usakume lehiaketa**, Boroa industrialdean. 11:00etan, **tenis lehiaketaren finalak**, tenis klubean. 18:00etan, **Karmenetako VI. eskupilota txapelketa**, frontoian. 22:30ean, **Green Dog + Honat**, txosnetan. 23:00etan, **Kanp berbena + Varadero orkestra**, Zubiondo plazan. 03:00etan, **Erotic urban cross**, txosnetan.

Uztailaren 21ean, goizean, **umeentzako jolas parkea**, Zelaieta parkean. 09:00etan, **herriko usakume tiroa**, Boroa industrialdean. 11:00etan, **itsas modelismo erakustaldia**, Jauregibarrian. 11:00etan, **Amorebieta-Etxanoko II. milia eta jaietako lasterketa**, Zubiondo parketik Jauregibarriara.



### :: DURANGO | ZUGAZA

#### 1. aretoa:

#### Ahora me ves

Zuzendaria: Louis Leterrier

- barikua 19: 19:30/22:00
- zapatua 20: 19:30/22:30
- domeka 21: 19:00/21:15
- astelehena 22: 18:00/21:00
- martitzena 23: 20:00

#### Gru. Mi villano favorito 2

Zuzendaria: Pierre Coffin

- zapatua 20: 17:00
- domeka 21: 16:45

#### 2. aretoa:

#### Antes de anochecer

Zuzendaria: Richard Linklate

- barikua 19: 22:00
- zapatua 20: 19:30/22:30
- domeka 21: 19:00/21:15
- martitzena 23: 20:00

#### Gru. Mi villano favorito

- barikua 19: 19:30
- astelehena 22: 18:00

#### Niños grandes 2

Zuzendaria: Dennis Dugan

- barikua 19: 17:00
- domeka 21: 16:45

#### Springsteen & I

Zuzendaria: Baillie Walsh

- astelehena 22: 20:00

## UZTAILEKO AGENDA



20

### IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA

Iurreta-Sarasola-Ugao-Laudio-Garate-Markuartu-Laudio-Ugao-Sarasola-Iurreta (113 km).

### EMAKUMEEN BIRA ZIKLISMO K.E.

16:30 Euskadiko Txapelketa. Urduña.

21

### IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA

08:00 Iurreta-Areitio-Elgoibar-San Migel-Markina-Lekoitz-Aulesti-Munitibar-Galarregi-Iurreta (80 km).

### Santixau jaiak, Orozketa

Uztailaren 24an:

-Jaien hasiera eta txapligoak jaurtitzea.

Uztailaren 25ean

- 12:00 Meza nagusia

- Ondoren, Iurretako Mikel Deuna dantza taldearen ekitaldia.

- Paella txapelketa (14:30ean paellen aurkezpena).

- 16:30 Umeen jolasak eta tailerrak.

- 17:30 Briska txapelketa.

- 18:30 Igel txapelketa.

Jaietako amaiera emateko, errifan zozketa eta txapligoak.

24,  
25

27

### IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA

08:00 Iurreta-Autzagane-Gernika-Lekeitio-Deba-Eibar-Areitio-Iurreta (107 km).

28

### IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA

08:00 Iurreta-Asua-Getxo-Plentzia-Andraka-Mungia-Fika-Larrabetzu-Iurreta (100 km).

### EMAKUMEEN BIRA ZIKLISMO K.E.

10:00 Villamediana.

31

### IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA

08:00 Iurreta-Autzagane-Gernika-Laga-Ereño-Nabarniz-Gernika-Mendata-Urrutxua-Iurreta (90 km).

**NOCTIS LABYRINTHUS**  
PHOTOGRAPHY

{ 3 }

begirada ilantzesari  
miradas al lado oscuro  
gazea towards darkness

angst  
hala agorritie

ERO  
Togoa lasterrena

MOO  
ARRABARRERA

Uztailaren 28ra arte, Elorriko Casajara jauregian  
**ERAKUSKETA KOLEKTIBOA**

Elorriko Musikaire jaialdiaren barruan, Casajara jauregian dago ikusgai Txelu Angoitia, Segun Lazkano eta Jesus Mari Arruabarrena Durangaldeko argazkilarien erakusketa, uztailearen amaierara arte.

**> ZORION AGURRAK**

✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguztieneko 14:00ak arteko epea



> **Iratxe** eta **Ibon** abuztuaren 3an ezkonduko dira, bazen garaia bikote! Zorionak eta bihotzez eskerrak, ematen diguzuen guztiagatik. Elorrixoko familia eta Piterson.



> **Ibai Zabalak** uztailaren 17an zortzi urte bete ditu. Zorionak eta musu handi bat Elorrioko amama eta aititaren partez.



> Zorionak **Estrella!** Uztailaren 15ean bete zituen urteak. Mosu handi bat danon partez, eta bereziki Iker eta Asierren partez.



> Zorionak printzesa! Madalena egunean 5 urte, esku bat bete-beteta. Denok batera ospatuko dugu merendolan. Musu potolo bat familiaren partez.



> Zorionak **Asier Vallejo!** Uztailaren 27an 4 urtetxo beteko dozuz. Mosu handi bat etxeko danon partez.



> Uztailaren 13an **Lucia Muriel Cebrianek** 2 urtetxo bete zituen. Zorionak, etxeko danon partez. Mosu handi bat marigorringo!



> Gaur, uztailak 19, **Aitzolek** 5 urte bete dauz! Zorionak mutil handi familia osoaren partez, eta egun ona pasatu!



> Zorionak **Narrea!** Uztailaren 30ean 9 urte beteko dituzu. Ondo pasatu Beko-Errotako familia osoaren partez. Mua!



> Zorionak rubia! 21 mosu hippie handi gure kuadrillako printzesa kapritxosientzat. Ederto ospatuko dogu bixer, xalamera!



> Zorionak **Jon!** Zure familia eta lagunaren partez! Ondo pasa zure urtebetetze egunean!



> Uztailaren 21ean ospatuko dogu **Maierrren** 4. urtebetetze. Maitte zaittugun guztixon partez, ZORIONAK!!



> Pasa dan zapatuan aitita **Pablo** eta amama **Karmenen** 50 urre-ekontza, eta amamaren 80. urtebetetzea ospatu genituen. Zorionak bihotz-bihotzez eta segi horrela urte askoan!



> Zorionak **Badi!** Guardiatxuko basurde nekazaina. 31 urte eta ondiño pelotan tinko! Bixerko bazkarixe zeure kontu!



Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 08 69  
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

> Hamabostean behin jasotako zorion agurren artean tarta bat zozkatzen dugu. Horretarako, beharrezkoa da zorion agurra-ekin batera kontakturako datuak bidaltzea.

**> BOTIKAK**

- BARIKUA, 19**  
09:00-09:00  
• NAVARRO (ARTEKALEA 6 - DURANGO)
- ZAPATUA, 20**  
09:00-09:00  
• SAGASTIZABAL (ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO)  
09:00-13:30  
• BAZAN DIAZ (URIBARRI 5 - DURANGO)  
• CAMPILLO (MONTEVIDEO 24 - DURANGO)  
• BALENCIAGA (EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO)  
• LARRAÑAGA-BALENTZIAGA (BERRIO OTXOA 6 - ELORRIO)  
• URIZAR (GABIOLA 2 - BERRIZ)  
09:00-22:00  
• LOPEZ DE ARETXAGA (TORRESOLO 4 - ABADIÑO)
- DOMEKA, 21**  
09:00-09:00  
• GAZTELUMENDI (J.A. ABASOLO 2 - DURANGO)
- ASTELEHENA, 22**  
09:00-09:00  
• ETXEBARRIA (MONTEVIDEO 2 - DURANGO)  
09:00-22:00  
• LARRAÑAGA BALENCIAGA (BERRIOTXOA 6 - ELORRIO)
- MARTITZENA, 23**  
09:00-09:00  
• IRIGOIEN (BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA)  
09:00-22:00  
• EGAÑA (BEKOETXE 4 - ZALDIBAR)
- EGUAZTENA, 24**  
09:00-09:00  
• BAZAN DIAZ (URIBARRI 5 - DURANGO)
- EGUENA, 25**  
09:00-09:00  
• UNAMUNZAGA (MURJETATORRE 2C - DURANGO)

**> TELEFONO INTERESGARRIAK**

- SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... 94 681 09 49  
Osakidetza ..... 94 600 72 00  
Ertzaintza ..... 94 466 93 00

**> GARRAIOAK**

- Euskotren ..... 902 54 32 10  
Bizkaibus ..... 94 448 40 80  
Pesa ..... 902 10 12 10  
Continental Auto ..... 945 286 466

**> TAXIAK**

- Abadiño ..... 94 681 44 70  
Matiena ..... 606 459 988  
Durango geltokia ..... 94 681 10 01  
Elorrio geltokia ..... 94 682 00 40  
J.L. Uriarte ..... 670 402 002  
I. Estebez ..... 670 678 273  
M. Galeano ..... 670 409 330  
Iurreta taxi auzunea .. 688 618 690  
Berrizko auzo taxia .. 620 022 800

**> EGURALDIA**

18° 32° ZAPATUA ☀️	19° 32° DOMEKA ☀️
18° 27° ASTELEHENA ☁️	19° 32° MARTITZENA ☁️

**> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA**

**Abadiño (Traña-Matiena)**  
Eguaztenetan  
10:00etatik aurrera  
**Durango**  
Zapatu goizetan  
**Zornotza**  
Domeka goizetan

**ASTEKO SALNEURRIAK:**

- Letxuga ..... 0,80 euro  
Letxuga haritz hostoa ..... 1 euro  
Azelga ..... 2 euro/kg  
Espinaka txorta ..... 1,20 txorta  
Berakatz freskoa ..... 1,50 txorta  
Ilarrak ..... 6 euro/kg  
Tomate kontserba ..... 3,90 euro/potea  
Arrautzak ..... 3,80 euro/dz  
Idiazabal gazta ..... 17 euro/kg  
Gari integraleko ogia ..... 3,30 euro



# “Egunetik egunera ortua hazten ikustea liluragarria da”

Auzokideak dira etxean, bai eta Mallazpiko ortuetan ere; pozik daude landareak hazten dabiltzala-eta

**> AMAIA UGALDE**

Igone Amesti eta Koldo Zabala mallabiarrak eguraldiari begira lehen baino sarriago dabilta orain. Euren bikotekideek bultzatuta, ortu ekologikoetan lursailtxoa hartu zuten maiatzean.

**Jaso duzue lehen fruiturik?**

**Koldo Zabala:** Oraindik ez. Gu berandu hasi ginen lanean. Nahiko berezia da gure egoera, ume

bat eduki berri dugu eta gurekin ortua daukan bikoteak ere bi ume dauzka. Horregatik, ekain hasieran ekin genion ortuari.

**Igone Amesti:** Nik oraindino ez dut ezer hartu, baina hasi dira irteten. Azelgak jada jateko moduan daude, tomateak hasi zaizkit, piper txorizeroak ere bai, kalabazin batzuk ere... Oraingoa momentu polita da.

**Zelan animatu zineten ortua hartzera?**

**K. Z.:** Guk, bikote biren artean hartu dugu. Neskek nahi zuten, eta eurak hasi ziren mugitzen. Herri bizitza egiteko modu bat dela ikusi genuen. Nire bikotekideari beti gustatu izan zaio ortuarena. Gainera biologia ikasi dugu, eta gauza hauek guztiak gustatzen zaizkigu.

**I. A.:** Gu ere bikotekideak nahi zuelako sartu ginen. Ni baserrikoa naiz, eta ez nuen beharrikanik ikusten; gurasoei eskatuta hartzen nituen letxugak, piperrak eta dena, beharrik egin barik. Mutil-lagunak gura zuen, eta ni ere gustura nabil.

**Noiz hartzen duzue tartea ortura joateko?**

**I. A.:** Bi egunik behin etortzen naiz. Ez bada ureztatzena, ikustera, belarrak kentzena... Kurioso mantentzen saiatzen naiz. Egunero etorriko banintz, seguru hobeto egongo zela. Aitak esaten dit, “egunean bi ordu, egunean bi ordu”.

**K. Z.:** Ni batzuetan 21:30ean etortzen naiz, beste batzuetan goizeko 06:30ean, lanera joan aurretik... Ahal dudanean.

**Askotan elkartzen zarete ortu lagunekin?**

**I. A.:** Asteburuetan, eta batez ere halako sargori eta beroekin asko agertzen gara 20:00etatik aurrera. Giro ona daukagu. Elkar ikusten dugunean ere beti gabiltza ortuari buruz berba egiten.

**K. Z.:** Besteena ikusten eta galdetzen ibiltzen gara, ikasten. Ni, adibidez, Donostiatik etorri naiz eta ez dut orturik inoiz izan.

**Arazorik eduki duzue?**

**I. A.:** Niri satorra sartu zi-

tzaidan ortua prestatzen nabilela, eta Koldorengana-eta ere joan da... Bake apur bat eman dit, eta orain berriro hasi da gerra ematen. Arazo handiena bareekin eduki dut. Egunetik egunera letxugak desagertu egiten zitzaizkidan. Kafea bota dut partzela inguruan, eta pare bat pote ipini nituen garagardoagaz... Funtzionatu du. Lortu dut geratzen zaizkidan letxugak salbatzea.

**Udaberrian euri asko egin izanak eragingo zuen ortuan.**

**I. A.:** Nik igarri dut. Landareak sartu ostean euri asko egin du... Ortua azken bi asteetan hobetu zait.

**K. Z.:** Guk arazorik ez dugu eduki. Berandu hasi ginen landatzen, eta ordutik hona ez du euririk egin.

**Poztasuna emango dizue ortua hazten ikusteak.**

**I. A.:** Bai, niri asko gustatzen zait eta gustura nabil. Baina hasieran esaten nuen, “merez du?”. Lehen, telefono dei batekin konponduta neukan!

**K. Z.:** Kontua ez da merezi edo ez merezi. Da hona etorri, eta norberak ereindako tomatea etxera eroan ahal izatea...

**I. A.:** Eta ikustea egunetik egunera zelan doan. Ni zorabuta nabil asteon tomateak irten zaizkidala, kalabazinak zelan hazi diren... Liluratu-ta nago.

**Lehenengo batzen duzuen gustura jango duzue!**

**K. Z.:** Bai, zer edo zer ateratzen bada... Bareek-eta ez badizkigute lehenago jaten...

**I. A.:** Ea euririk ez duen egiten, bestela, salduta nago.


**Erronboa**

Euskal Herriko, Espainiako eta Europako gizarte egiturak erronbo itxura zeukan: goialdean aberats boteretsu batzuk; erdian klase ertain sendoa; eta azpian pobrezian bizi zen jende multzo txikia. Arrazoï eman behar diot Jon Torner Argiako kazetariari, erronbo horrek harearlotu itxura hartu duela azaltzen duenean. Erdiko multzoari zuloa egin diote eta harealeak beheko multzora erortzen ari dira banan-banan eta etengabe. Piramide itxura hartuko du laster.

Pentsarazi ziguten eroso bizi ginela erronboaren gizatasunean murgilduta. Demokrazia ezin perfektuagoaren ideia saldu ziguten: erronboaren muturrak (aberatsen zatia eta pobreen zatia) eskurazinak zirela, eta erdiko multzoan goraka egitea bakoitzaren borondatearen eta esfortzuaren esku zegoela; gainera, espresuki guretzako egindako demokrazia perfektuan, erabakien parte izateko aukera geneukala uste izan genuen.

Orain, erronboan eroso bizi ginenak esnatzea lortu dute, gura beste erasorekin: botiken ordainketa partekatua, erretiroa atzeratzea, soldaten jaitsiera, zeharkako zergen igoera (tabakoa, besteak beste), unibertsitateko tasen igoera, beken murrizketa, argindarraren igoera, eta abar. Horrek ondorio bakarra izan dezake: klasearteko borroka enegarrenez berpiztea.

Historia ziklikoa da: XV, XVI, XVII, XVIII, XIX eta XX. mendeetan bezala, herriak ez du goiko eliteei aurre egiteko erabakitzeke tresnarik. Erabakia eliteena da, kontrakoa saldu baziguten ere. Almuniak, Rak eta Urkulluk erabakitzen dute. Zapatisten utopiaren borroka berreskuratu dugu: “*el pueblo manda, el gobierno obedece*”.



## 10 HAMARREKO MENUA

EGUNEKO MENUA 10€ (egunero menu begetarianoa aukeran) / MENU ERDIA 7,50€ /  
 UMEEN MENUA 8€ / UMEEN MENU ERDIA 6€ / ZAPATUETAKO MENUA 13€ /  
 ZAPATUETAKO UMEEN MENUA 10€ / ZAPATUETAKO UMEEN MENU ERDIA 8€ /  
 MENU TXARTELAREKIN MENUA 9€ /





